

I. XEDAPEN OROKORRAK**ESTATUKO BURUZAGITZA**

7831 *3/2018 Legea, ekainaren 11koa, Europar Batasunean zigor-arloko ebazpenak elkarri aitortzeari buruzko azaroaren 20ko 23/2014 Legea aldatzen duena Europako Ikerketa Agindua arautzeko.*

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege hau onetsi dutela eta nik berretsi egiten dudala:

HITZAURREA

I

Europar Batasunean zigor-arloko ebazpenak elkarri aitortzeari buruzko azaroaren 20ko 23/2014 Legearen bidez, arlo horretako esparru-erabaki eta zuzentarau guztiak batu ziren testu bakarrean Espainiako zuzenbidean, horren barne zirela, bai lehendik gure zuzenbidera ekarritakoak, bai ekarri gabe zeudenak. Erabilitako legegintza-teknikak aukera eman zuen arauen dispersioa saihesteko eta zuzenbidearen profesionalek hura hobeki ezagutzeko eta erabiltzeko. Etorkizunean gai horretan eman daitezkeen zuzentaruak erraz txertatzeko moduko eskema baten arabera egituratu zen. Arau oso berariazkoak dira, Europar Batasunaren legegintza-dinamikari berari lotuak, eta horrek justifikatu zuen Prozedura Kriminalaren Legean txertatu beharrean beste lege bat eratzea haiek jasotzeko, hain zuzen, Prozedura Kriminalaren Legearen osagarri izango zena eta harekin koordinatua.

Elkarrekiko aitortzaren printzipioak berekin dakar estatu kideen arteko zigor-arloko lankidetzak judiziala artikulatu beharra agintaritzak judizialen arteko harreman zuzenen oinarriaren gainean; izan ere, horrela eginez, agintaritzak zentralen esku-hartzea ez da, ez beharrezkoa, ez nahitaezkoa. Sistema, halaber, elkarrekiko konfiantzan oinarritzen da, eta horrek berekin dakar beste estatu batzuetako agintaritzak eskudunek emandako ebazpenak modu ia automatikoan aitortu eta betearaztea, eta horrela egiten ez denean, eteterako eta aitortza ukatzeko kausa tasatuta egotea.

Europar Batasunaren arau horiek gure zuzenbidean sartzerakoan, legeak horietan guztietan (edo ia guztietan, Europako araugintza-teknika askotarikoa izan baita) komunak diren elementuak hartu zituen, eta arau orokor batzuk eman, zeinak berariazko arauekin eta eranskinekin osatu baitzituen; hain zuzen, tresna horiek baliatzerakoan Europar Batasuneko agintaritzak judizialei igortzen zaizkien ziurtagiriak barruan hartzen dituzten eranskinekin.

Azkenik, lege horrekin batera, urriaren 29ko 6/2014 Lege Organikoa etorri zen, zeinak Botere Judizialaren ekainaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatu baitzuen. Urriko lege horrek aitorten orokorra egin zuen zigor-arloko eskumena duten organo judizialen alde, hain zuzen, elkarrekiko aitortenaren arloko berariazko arauak direla-eta horiei esleitzen zaizkien ahalmenei dagokienez, saihesteko arlo honetako Europako arau berri bakoitzaren transposizioak ekar zezala Botere Judizialaren Legearen beste erreforma bat kasuan kasuko eskumena esleitzeko.

Azken finean, arau horiek tresna integratzaile gisa eman ziren, eta Europako arauak ezarritako eginbideak betetzeaz gainera, Europar Batasunean zigor-arloko lankidetzak judiziala hobetzeko konpromisoari eta Europako mugaz gaindiko krimenen aurkako borrokari erantzuten diote, eta herritarren segurtasuna eta eskubideak bermatzen dituzte, hori lortzea Estatuak utziezinezko xedea baita.

II

Asmo harmonizatzaile bera ikusten da Europako eremuan, zeinean frogak segurtatzeari eta frogak lortzeko Europako exhortoari buruzko 2003/577/JAI eta 2008/978/JAI esparru-erabakiak hartu zirenetik ageri-agerian gelditu baitzen Europar Batasunean frogak lortzeko zegoen esparrua zatikatuegia eta konplexuegia zela. Orduan sortu zen zigor-arloko prozedura judizialean beste estatu kide batean frogak lortzea gaur egun arautzen duten arauak tresna bakarrean bateratzeko helburua. Arau horiek gaur egun barreiatuta daude nazioarteko hitzarmenetan, erabakietan eta esparru-erabakietan.

Planteamendu berri honen ildo nagusiak Europako Kontseiluak 2009ko abenduaren 10ean eta 11n onetsitako Stockholmeko Programan sortu ziren, hartan erabaki baitzen sistema orokor bat sortzen jarraitu beharra zegoela mugaz gaindiko dimentsioa duten kasuetan frogak lortzeko, elkarrekiko aitortzaren printzipioan oinarrituta. Ondorioak ikusita, planteamendu berria egitea zen egokiena, aipatutako printzipioan oinarritua, baina, aldi berean kontuan hartuko lukeena laguntza judizialaren sistema tradizionalaren malgutasuna eta ordeztuko lituzkeena eremu horretan dauden tresna guztiak.

Horrek guztiak berekin ekarri du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 3ko 2014/41/EB Zuzentaraua onestea, zigor-arloko Europako ikerketa-aginduari buruzkoa, zeina oinarritzen baita Europar Batasunaren mugaz gaindiko zigor-arloko frogak lortzeko tresna bakar batean. Zuzentarauak, negoziazio-prozesu geldo eta konplexu baten ondoren Espainiako lehendakaritzaren pean proposatutakoak, Europako ikerketa-agindua arautzen du, zeina emango baita berariazko ikerketa-neurri bat (edo batzuk) lortzeko, hura betearaziko den estatuan aplikatuko dena (direnak), frogak lortzeari edo jada agintaritza betearazlearen esku daudenak jasotzeari begira.

Europako ikerketa-aginduak araubide bakarra sortzen du frogak lortzeko, baina arau gehigarri batzuk ezartzen ditu neurri-mota jakin batzuetarako. Honako hauetarako, besteak beste: atxilotuen aldi baterako lekualdatzerako; telefono, bideokonferentzia edo ikus-entzunezko beste transmisio modu batzuen bidezko agerraldietarako; banku-kontuekin edo banku- zein finantza-transakzioekin lotutako informazioa lortzeko, zaintzapeko entregetarako edo ezkutuko ikerketetarako eta beste estatu kide baten laguntzarekin telekomunikazioak kontrolpean hartzeko. Horri dagokionez, Europako ikerketa-aginduak, halaber, frogak denbora errealean, modu jarraituan edo epe jakin batez, lortzea berekin dakarten neurriak biltzen ditu, eta aurreikusten du ezen, beharrezkoa denean, estatu emaileak eta estatu betearazleak elkarren artean xedapen praktiko batzuk erabaki ahalko dituztela bateragarri egiteko haien barne zuzenbideak, arazo beraren aurrean desberdin jokatzen dutenean.

Zigor-arloko prozeduraren edozein fasetan eskatu eta gauzatu ahalko da ikerketa-neurri bat frogak lortzearen ondoretarako, bistaren fasea barnean dela interesdunak parte hartzea beharrezkoa bada. Esate baterako, Europako ikerketa-agindu bat eman daiteke pertsona bat estatu emailera aldi baterako eramateko, edo bideokonferentzia bidezko agerraldi bat egiteko. Hala eta guztiz ere, pertsona bat beste estatu kide batera eraman behar bada han epaitua izateko, horren barnean dela organo jurisdikzional baten esku uztea epai dezan, atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu bat eman beharko da.

Lege honek, horrenbestez, langai du aipatutako zuzentarauaren transposizioa, eta horretarako azaroaren 20ko 23/2014 Legea aldatzen du hura Espainiako zuzenbidean sartzeko. Halaber, doikuntza txiki batzuk aurreikusten dira lege horren indarraldian zehar sortutako arazoak direla-eta, hain zuzen, legearen eguneraketa edo zuzenketa egitea beharrezko egiten duten arazoak.

Transposizioan jarraitutako irizpideak erregulazio onaren printzipioetan oinarritu dira, horren barne dela, alde batetik, beharraren eta eraginkortasunaren printzipioa, zeina betetzen baita zuzentarauaren testuaren transposizioa fideltasunez eta egungo araudia ahal den gutxiena erreformatuz egin delako, halako moduz non dispertsioa saihesten baita sinplifikazioa lortzeko; eta, bestetik, proportzionaltasunaren printzipioa, zeina betetzen baita betebeharrari eta segurtasun juridikoarenari erantzuteko ezinbesteko arauketa jasotzen duelako. Izan ere, haren asmoa da arau-esparru egonkorra, aurreikus daitekeena, integratua eta argia gordetzea, hau da, azaroaren 20ko 23/2014 Legearen konpilazioak lortu zuen arau-esparrua.

III

Legeak artikulua bakarria du, eta artikulua horrek hogeita zazpi apartatu, xedapen gehigarri bat, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat, sei azken xedapen eta eranskin bat dauzka; eranskinak lege indardunaren eranskinen aldaketa eta eranskin berrien sorrera jasotzen ditu.

Transposizio-prozesuak berekin dakar azaroaren 20ko 23/2014 Legearen artikulua garrantzitsuak aldatzea, Europar Batasuneko zuzenbideak eskatzen dituen aurreikuspenak jaso behar baitira. Transposizio-modu hori onena da, araugintzaren teknikaren ikuspuntutik egokiena eta segurtasun juridiko handiena ematen duena; izan ere, Europar Batasunaren barruko zigor-arloko elkarrekiko aitortzarako tresnak eta neurriak arau bakarrean, hain zuzen, betekizun formal eta materialengatik lege mailakoa den arau bakarrean biltzeko eta arautzeko sistemari jarraitzen dio, eta horrela eginez, operadore juridikoei ikuspegi oso bat ematen zaie EBren barruko zigor-arloko elkarrekiko aitortza-sistemari buruz eta hura barneko antolamenduan tresna juridiko bakarrean arautzekoari buruz, hartara arauen dispersioa saihestuz.

Artikulu bakarraren hogeita bigarren apartatuak X. titulu berria sartzen du azaroaren 20ko 23/2014 Legean. Titulu berri horrek Europako ikerketa-agindua arautzen du, eta Europako araudiak –2016/95 (EB) Erregelamenduak bereziki– indarrak gabe utzitako exhortoa ordeztzen du; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko urtarrilaren 20koa den erregelamendu horren bidez, zigor-arloko lankidetzak polizial eta judizialaren eremuko zenbait egintza indarrak gabe utzi ziren. Aldatutako legearen eskemari jarraitzen dio titulu horren egiturak; hau da, ikerketa-aginduaren gai orokorreari buruzko kapitulu bat dago, eta agindua emateari eta betearazteari buruzko kapitulu bana.

Aurrekoarekin koherentzia izateko, exhortoari zegokion azaroaren 20ko 23/2014 Legearen XIII. eranskina ordeztzen da, eta aldaketan Europako ikerketa-aginduari dagozkion eranskinak jasotzen dira.

IV

Azkenik, egokitu beharrekoak ziren eta azaroaren 20ko 23/2014 Legearen aplikazioan zehar agerian gelditu diren alderdi batzuen inguruko aldaketak egiten dira.

Hartara, lehenbizi atxilotzeko eta entregatzeko Europako aginduaren betearazpenaren gaineko kapituluak aldatzen da atxilotuei aitortutako eskubideen eskakizunetara egokitzeko; hau da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko urriaren 22ko 2013/48/EB Zuzentarauan ezarritako eskubideetara eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko maiatzaren 11ko 2016/800/EB Zuzentarauan jasotako eskubideetara egokitzeko. 2013/48/EB Zuzentzaraua zigor-arloko prozesuetan eta Europako atxilotzeko aginduari dagozkion prozeduretan letraduaren laguntza izateko eskubideari buruzkoa da; 2016/800/EB Zuzentzaraua, berriz, zigor-arloko prozesuetan susmagarriak edo akusatuek diren adingabeen berme prozesalei buruzkoa.

Hurrena, araua egokitzen da Aktiboak Berreskuratu eta Kudeatzeko Bulegoa dagoela eta bulego horrek Espainian bahituen eta konfiskazioen arloetan hartu duen protagonismoa aintzat harturik, bulego horren jarduketak elkarrekiko aitortzaren eremuan duen efizientzia hobetzeko; eta alderdi batzuk zehazten dira hobeto jarraitzeko konfiskazio-ebazpenen elkarrekiko aitortzaren printzipioa aplikatzeko buruzko Kontseiluaren 2006ko urriaren 6ko 2006/783/JAI Esparru Erabakiari.

Gainera, araua aldatzen da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko urriaren 26ko 2016/1919 Zuzentzarauaren (EB) alderdi batzuen transposizioa egiteko; izan ere, estatuak finantzatutako legelari baten laguntzarako eskubidearen eraginkortasuna bermatu nahi zaie Europako atxilotzeko agindu-prozedura dela-eta –Kontseiluaren 2002/584/JAI Erabaki Markoarekin bat– bilatzen diren pertsonen. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko urriaren 26ko zuzentzarau hori zigor-arloko prozesuetako susmagarri eta akusatuentzako eta Europako atxilotzeko agindu-prozedura dela-eta bilatzen diren pertsonentzako doako laguntza juridikoari buruzkoa da.

Halaber, arau horren VIII. eranskinaren ordean VIII. eranskin berria jartzen da, zeinak, neurri berari buruzkoa bada ere –Europako babes-agindua–, aurreko bertsioak zeukan akats bat zuzentzen baitu.

V

Bestalde, arauak, hiru azken xedapenen bitartez, aldaketa bana egiten du Doako Laguntza Juridikoaren urtarrilaren 10eko 1/1996 Legean, Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legean eta Estatuaren Kanpo Ekintza eta Zerbitzuari buruzko martxoaren 25eko 2/2014 Legean.

Azken zatiari gehitutako lehenengo erreformaren helburua da Doako Laguntza Juridikoaren urtarrilaren 10eko 1/1996 Legea 2016/1919/EB Zuzentarauari egokitzen amaitzea.

Bigarren reforma Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 655/2014 (EB) Erregelamendua 2017ko urtarrilaren 18tik aurrera aplikatzearen ondoriozkoa da; izan ere, erregelamendu horrek kontuen atxikipenari buruzko Europako agindurako prozedura ezartzen du, arlo zibileko eta merkataritza arloko zorren mugaz gaindiko kobrantza errazteko. Europako beste tresna batzuk aplikatzeko, jada, hartu diren neurrien ondoren, Espainiako ordenamendu juridikoa egokitu behar da kontuen atxikipenari buruzko aginduak aurreikusten duen prozedurari, horregatik, azken xedapen berri bat gehitzen da Prozedura Zibilaren Legean, kontuen atxikipenari buruzko Europako aginduaren aplikazioa errazteko.

Eta, azkenik, hirugarren aldaketaren xedea da Kontseiluaren 2015eko apirilaren 20eko 2015/637/EB Zuzentarauaren (EB) transposizioa egitea. Hirugarren herrialdeetan ordezkaturik ez dauden Batasuneko herrialderen kontsulatuaren babesa errazteko koordinazio- eta lankidetzak neurriak buruzko zuzentaraua da hori, eta haren bidez 95/553/EE Erabakia indarririk gabe uzten da, lege mailako araua behar den alderdietan.

Artikulu bakarra. *Europar Batasunean zigor-arloko ebazpenak elkarri aitortzeari buruzko azaroaren 20ko 23/2014 Legea aldatzea.*

Europar Batasunean zigor-arloko ebazpenak elkarri aitortzeari buruzko azaroaren 20ko 23/2014 Legea honela aldatzen da:

Bat. Aldatu egiten da 2. artikuluen 2. apartatuaren i) letra, eta honela geratzen da idatzita:

«i) Europako Ikerketa Agindua.»

Bi. Aldatu egiten da 7. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«7. artikulua. *Agindu eta ebazpenak ematea eta dokumentatzea elkarri aitortzeko printzipioaren babesean betearaz daitezten.*

1. Espainiako zigor-ebazpen batek Europar Batasuneko beste estatu kide batean jarduera prozesalak burutu daitezten behar badu eragina izateko eta jarduera hori lege honetan araututako elkarri aitortzeko tresnaren bat bada, Espainiako agintaritzak judizial eskudunak hori dokumentatuko du nahitaezko formulario edo ziurtagirian, eta beste estatu kideko agintaritzak judizial eskudunari helaraziko dio hark betearazteari ekin diezaion.

Ziurtagiriaren oinarri den zigor-ebazpenaren testigantza nahitaez bidaliko du ziurtagiriarekin batera, honako kasu hauetan izan ezik: atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua, babesteko Europako agindua edo Europako ikerketa-agindua. Azken horiek soilik dokumentatuko dira dagokion formularioa baliatuta.

Ebazpenaren edo ziurtagiriaren originala agintaritzak betearazleak eskatzen duenean baino ez da bidaliko.

2. Dokumentatzen den ebazpena emateko eskumena duen agintaritzaren judizialak sinatuta egongo da ziurtagiria edo formularioa.

3. Ziurtagiria edo formularioa helburu duen estatu kideko hizkuntza ofizialera edo hizkuntza ofizialetako batera itzuliko da; edo, hala badagokio, estatu horrek onartutako europar erakundearen hizkuntza ofizial batera, estatu horrekin egindako hitzarmenek gaztelaniaz igortzeko aukera ematen duten kasuetan izan ezik.

Zigor-ebazpena agintaritzaren judizial betearazleak hala eskatzen badu baino ez da itzuliko. Itzulpenaren kostua hura erreklamatzeko duen estatu betearazleak hartuko du bere gain; salbuespena izango da III. tituluaren araututako askatasunaz gabetzeko zigor edo neurriak ezartzen dituen ebazpenaren itzulpenarena.»

Hiru. Aldatu egiten da 8. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Elkarri aitortzeko tresnen helarazpena, bai eta lege honen arabera egindako beste edozein jakinarazpen ere, estatu betearazleko agintaritzaren judizial eskudunari helaraziko zaio zuzenean, hala egin izana jasotzen duen idatzizko agiria baliatua, zeinaren egiazkotasuna ziurtatzeko modua egongo baita.

Elkarri aitortzeko tresna bat betearazteko behar den dokumentu baten helarazpenaren edo egiazkotasunaren inguruan sortutako edozein arazo inplikaturako agintaritzaren judizialen arteko zuzeneko komunikazioaren bidez konponduko da; edo estatu kideetako agintaritzaren zentralen parte-hartzearen bidez, hala badagokio, atxilotzeko eta entregatzeko Europako aginduen edo Europako ikerketa-aginduen kasuetan.»

Lau. Aldatu egiten da 9. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«9. artikulua. *Elkarri aitortzeko tresnen inguruan Eurojust erakundeari nahitaez eman beharreko informazioa.*

Uztailaren 7ko 16/2015 Legearen eta hura garatzeko araudian ezarritakoaren arabera arautuko dira elkarri aitortzeko tresnak erabiltzearen ondorioz sortzen den informazioa Eurojusti helarazteko betebeharra eta hari egiten zaion laguntza eskaera; 16/2015 Legearen Espainiak Eurojust erakundearen duen kide nazionalaren estatutua, jurisdikzio-gatazkak, nazioarteko lankidetzarako sare judizialak eta Justizia Ministerioak atzerrian dituen langileak arautzen ditu.»

Bost. Aldatu egiten da 12. artikulua, lehenengo paragrafoa, eta honela geratzen da idatzita:

«Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu bat, askatasunaz gabetzeko zigor edo neurriak ezartzen dituen ebazpen bat edo Europako ikerketa-agindu bat eman duen Espainiako agintaritzaren judizialak dakienean erreklamatuak igaro behar duela estatu betearazlea ez den beste estatu batetik, Justizia Ministerioari eskatuko dio horretarako baimena eska dezan. Horrenbestez, ebazpen judizialaren eta egindako ziurtagiriaren kopia igorriko dio, azken dokumentu hori iragaitzazko estatuak onartzen duen hizkuntzetako batera itzulita.»

Sei. Aldatu egiten da 14. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«14. artikulua. *Gastuak.*

Espainiako Estatuak finantzatzeko beste estatu kide bati helarazitako elkarri aitortzeko agindu edo ebazpen bat betearazteak dakartzan gastuak, estatu betearazlearen lurraldean sortutakoak izan ezik.

Espainiako agintaritzaren eskudunak emandako konfiskatzeko ebazpen judiziala edo Europako ikerketa-agindu bat betearazteko eskatu zaion estatu betearazlearen jakinarazpena jasotzen bada sortutako gastuak partekatzea proposatzeko, bost eguneko epean, jakinarazpena jasotako egunetik zenbatzen hasita, ofizioa bidaliko

zaio Espainiako Justizia Ministerioari estatu betearazlearen proposamena onar dezan, guztiz edo partzialki, edo errefusa dezan eta kostuak banatzeko akordioa egin dezan.

Baldin eta ez bada akordio batera iristen, Espainiako agintaritza emaeleak erabakiko du ea Europako ikerketa-agindua guztiz edo partzialki erretiratzen duen edo hari eusten dion; azken kasu horretan, ohi baino handiagozat jotzen diren kostuak ordainduko ditu.

Aurrekoa kendu gabe, hurrengo araei jarraituko zaie ondoren aipatzen diren kasuetan:

a) Baldin eta Espainiako agintaritzak Europako ikerketa-agindua emateak berekin badakar atxilotuak Espainiara edo estatu betearazlerra aldi baterako eramatea ikerketa-neurri bat aurrera eramateko, Espainiako Estatuak finantzatuko ditu lekualdatzetik eta itzulketatik datozen gastuak.

b) Baldin eta Espainiako agintaritzak Europako ikerketa-agindua emateak berekin badakar telekomunikazioak kontrolpean hartzea, komunikazioen transkripzioaren, deskodetzearen eta desenkriptatzearen gastuak Espainiako Estatuak finantzatuko ditu.»

Zazpi. Aldatu egiten da 21. artikulua 2. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Betearazpena aginduak edo ebazpenak jasotzen duenari jarraikiz egingo da, eta ezin izango zaie aplikatu aginduak edo ebazpenak barne hartzen ez dituen pertsoneri, ondasunei edo dokumentuei, Europako ikerketa-aginduan xedatutakoa ezertan eragotzi gabe; eta estatu kideetako agintaritza zentralek parte-hartuko dute.»

Zortzi. Aldatu egiten da 24. artikulua 1. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Lege prozesal indardunean aurreikusitako arau orokorren arabera kasuan-kasuan bidezkoak diren errekurtsioak aurkeztu ahal izango dira Espainiako agintaritza judizialak elkarri aitortzeko Europako tresnen gainean ebazteko ematen dituen ebazpenen kontra.»

Bederatzi. 25. artikulua 3. apartatua gehitzen zaio, eta honela geratzen da idatzita:

«3. Europako ikerketa-agindua betearaztean Espainiako agintaritza eskudunak uste badu betearaztearen kostuak ohi baino altuagoak izango direla, komunikazio bat bidaliko dio Espainiako Justizia Ministerioari, horrek, egokitzat jotzen badu, proposamena egin diezaion estatu emaeleari sortutako gastuen balizko banaketari buruz edo, kasua bada, Europako ikerketa-agindua aldatzeari buruz, gastu horiek estaltzen dituen Espainiako Estatuak izan beharrean estatu emaelea izan dadin.

Aurrekoa kendu gabe, hurrengo araei jarraituko zaie ondoren aipatzen diren kasuetan:

a) Baldin eta beste estatu kide bateko agintaritza eskudunak emandako Europako ikerketa-aginduak berekin badakar atxilotuak Espainiara edo estatu emaeleari aldi baterako eramatea ikerketa-neurri bat gauzatzeko, estatu emaeleak finantzatuko ditu lekualdatzetik eta itzulketatik datozen gastuak.

b) Baldin eta beste estatu kide bateko agintaritza eskudunak emandako Europako ikerketa-aginduak berekin badakar telekomunikazioak kontrolpean hartzea, estatu emaeleak finantzatuko ditu kontrolpean hartuko diren komunikazioen transkripzioaren, deskodetzearen eta desenkriptatzearen gastuak.»

Hamar. Aldatu egiten da 27. artikulua 1. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Pertsona bat Espainiako lurraldetik igaro dadin baimena emateko eskuduna izango da Justizia Ministerioa, baina horretarako estatu emaileak igartzeko baimen-eskaerarekin batera ebazpena betearazteko emandako ziurtagiriaren kopia igorri beharko dio; pertsona hori estatu betearazletik estatu emailera eramaten ari direnean atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu bat, askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat edo Europako ikerketa-agindu bat betearaztea dela eta.

Justizia Ministerioak estatu emaileari eskatu ahal izango dio formularioaren edo ziurtagiriaren kopia bat espainierara itzulita igor diezaion.»

Hamaika. Aldatu egiten dira 32. artikulua 1. eta 3. apartatuak, eta honela geratzen dira idatzita:

«1. Espainiako agintaritzak judizialek ez dituzte igorritako aginduak edo ebazpenak aitortuko edo betearaziko elkarri aitortzeko tresna bakoitzarentzat araututako kasuetan eta, oro har, honako kasu hauetan:

a) Espainian edo emailea ez den beste estatu batean pertsona beraren kontra eta gertaera berei buruz kondenatzeko edo absolbitzeko epai irmoa eman badute eta betearazteak *non bis in idem* printzipioa urratzen badu, legeetan eta Espainiak parte hartzen duen nazioarteko hitzarmen eta itunetan aurreikusitakoaren arabera, baita ondoren kondenatua indultatu badute ere.

b) Agindua edo ebazpena Espainiako agintaritzak epaitzeko eskudun diren gertaerei buruzkoa bada eta Espainiako jurisdikzio-organok batek kondenatutako delitua edo ezarritako zehapena preskribitu bada, Espainiako zuzenbidearekin bat etorritik.

c) Neurriak hartzeko eskaerarekin batera aurkeztu beharreko formularioa edo ziurtagiria osatu gabe badago edo nabarmen okerra bada edo ez badio neurriari erantzuten edo ziurtagiria falta bada, 19. artikuluan ezarritakoa ezertan eragotzi gabe.

d) Ebazpena betearaztea eragozten duen immunitatea badago.»

«3. Espainiako agintaritzak judizialak agindu edo ebazpen baten aitortpena eta betearazpena ukatu ahal izango ditu, baldin eta Espainiako zuzenbideak guztiz edo zati handi edo funtsezko batean Espainiako lurraldean egindakotzat jotzen dituen gertaerei badagokie. Kasu horretan lekukotza egin beharko da eta gaiaz arduratzeko organo judizial eskudunari igorri beharko zaio.»

Hamabi. Aldatu egiten da 33. artikulua 2. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Manu hori ez zaie aplikatuko ondasunen prebentziozko enbargoa edo frogen segurtatzea eskatzen duten ebazpenei, Europako ikerketa-aginduari, ezta behin-behineko espetxeratzearen ordezkotza neurriak ezartzen dituzten ebazpenei ere.»

Hamahiru. Aldatu egiten da 38. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«38. artikulua. *Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu bat eman aurreko deklarazioa hartzea.*

Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu bat eman aurretik, epaile eskudunak erreklamaturako pertsona zein estatutan dagoen, estatu horri baimena eskatu ahal izango dio deklarazioa hartzeko laguntza judizialeko eskabide baten bitartez.»

Hamalau. 39. artikuluari 4. apartatua gehitzen zaio, eta honela geratzen da idatzita:

«4. Estatu betearazlean dagoen erreklamaturako pertsonak eskubidea du Espainian abokatu izendatzeko, zeinak estatu betearazleko abokatuari lagunduko baitio; eskubide hori eta, kasua bada, doako laguntza juridikoarena egikaritzen dela bermatuko da, Espainiako zuzenbidearen arabera legezkoak diren baldintzetan. Espainiako agintaritzak judizialak izapidetu beharko du eskaera berehala, eta Abokatuen Elkargoak lehentasunez eta presaz egingo du izendatzea.»

Hamabost. Aldatu egiten da 48. artikulua 2. apartatuaren b) letra, eta honela geratzen da idatzita:

«b) Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua askatasunaz gabetzeko zigor edo segurtasun-neurri bat betearazteko eman denean, erreklamaturako pertsona Espainiako nazionalitatekoa bada edo Espainian bizilekua badu, zigorra estatu emailean betetzea onartzen badu izan ezik. Hala egin ezean, zigorra Espainian bete beharko du.»

Hamasei. Aldatu egiten da 50. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«50. artikulua. *Atxilotzea eta agintaritzak judizialaren esku jartzea.*

1. Atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindu batek eragindako pertsonak Prozedura Kriminalaren Legean eta adingabeen zigor-erantzukizunaren arloko legerian aurreikusitako moduan zein baldintza eta bermekin atxilotuko dira.

2. Atxilotu eta gehienez hirurogeita hamabi orduko epean Auzitegi Nazionaleko instrukzioko epaile zentralaren esku jarriko dute atxilotua. Adingabeen kasuan, hamalau urtetik hasita, epea hogeita lau ordura murriztuko da; epe horretan, adingabe atxilotua Auzitegi Nazionaleko Adingabeen Epaitegi Zentralaren esku jarriko da, adingabeen zigor-arloko erantzukizunari buruzko legerian ezarritakoari jarraituz.

Epailearen esku uzte hori agintaritzak judizial emaileari jakinaraziko zaio.

3. Atxilotua epailearen esku jarri ondoren, hauek jakinaraziko zaizkio: atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua dagoela; haren edukia; Europako agindua eman duen estatuan abokatu bat izendatzeko eskubidea duela, eta haren eginkizuna izango dela Espainian duen abokatuari laguntzea, hari informazioa eta aholkua emanez; epailearen aurreko entzunaldiaren izapidea eta estatu emaileko entrega ezeztazina onartzeko aukera duela, bai eta dagozkion gainontzeko eskubideak ere. Baldin eta estatu emailean abokatu bat izendatzeko eskatzen badu, berehala jakinaraziko zaio hori agintaritzak eskudunari.

4. Idatziz, argitasunez, nahikotasunez eta lengoia erraz eta ulergarria erabiliz jakinaraziko zaio atxilotuari estatu emailean abokatu izateari uko egiteko eskubidea duela, bai eta uko egite hori geroago baliogabetu ahalko duela ere, eta eskubide horren edukiaren eta haren ondorioen berri ere emango zaio. Uko egite horrek boluntarioa eta zalantzarik gabekoa izan beharko du, idatziz egina, eta idatzian haren inguruabarrak jaso beharko dira.

Estatu emailean abokatu izateari uko egite hori baliogabetu ahalko da zigor-arloko prozesuaren edozein unetan, eta eskaera horrek ondoreak sortuko ditu egiten den une beretik.»

Hamazazpi. Aldatu egiten da 90. artikulua lehenengo paragrafoa, eta honela geratzen da idatzita:

«Kondenatuak ihes egiten badu askatasunaz gabetzeko zigor edo neurri bat ezartzen duen ebazpena betearazten ari denean, espetxe-zaintzako epaile zentralak berehala emango dio horren berri zigor-arloko epaile zentralari, zeinak inguruabar hori jakinaraziko baitio agintaritzak emaileari eta testigantza egingo baitu kondenatuak izan ditzakeen zigor-erantzukizunen ikerketarako.»

Hemezortzi. Aldatu egiten da 127. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«4. Zaintza-neurriak ikuskatzean, instrukzioko edo emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaileak informazioa eskatu ahalko dio estatu emaileko agintaritza eskudunari kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta neurriak aplikatzen jarraitzeko beharraren gainean.»

Hemeretzi. 143. artikulua 4. apartatua gehitzen zaio, eta honela geratzen da idatzita:

«4. Titulu honetan araututako frogak segurtatzeari buruzko ebazpena soilik eman edo aitortu eta betearazi ahalko da Espainian X. tituluan araututako Europako ikerketa-aginduagatik lotuta ez dauden Europar Batasuneko estatu kideei zuzentzen zaienean edo estatu horietatik datorrenean, hurrenez hurren.»

Hogei. Bigarren paragrafoa gehitzen zaio 165. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«Aktiboak Berreskuratu eta Kudeatzeko Bulegoak akordio bat lortu ahalko du estatu betearazlearekin kostuen banaketari buruz, konfiskatutako ondasunen kudeaketan esku hartu duenean.»

Hogeita bat. Aldatu egiten da 172. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«172. artikulua. *Konfiskatutako ondasunekin zer egin.*

1. Agintaritza emailearekiko akordiorik ez badago, zigor-arloko epaile eskudunak honako hauen arabera jokatu du konfiskatzeko ebazpena betearazteagatik lortutako diruari dagokionez:

a) Konfiskatzeko ebazpena betearazteagatik lortutako zenbatekoa 10.000 eurotik beherakoa edo zenbateko horren baliokidea baino txikiagoa bada, zenbateko hori gordailu eta kontsignazio judizialen kontuan sartuko da.

b) Gainerako kasu guztietan, estatu emaileari konfiskatzeko ebazpena betearazteagatik lortutako zenbatekoaren 100eko 50 transferituko zaio. Gainerako 100eko 50a gordailu eta kontsignazio judizialen kontuan sartuko da.

Aurretik xedatutakoa betez Espainiari dagozkion zenbatekoak Altxor Publikora transferituko dira; hartarako, hala badagokio, arau berezietan ezarritakoa aplikatuko da eta, bereziki, Zigor Kodeak, Prozedura Kriminalaren Legeak eta Drogen lege kanpoko trafikoagatik eta horrekin zerikusia duten bestelako delituengatik konfiskatutako ondasunen funtsa arautzen duen maiatzaren 29ko 17/2003 Legeak eta hura garatzeko araudiak aurreikusitakoa.

2. Konfiskatzeko ebazpena betearaztearen ondorioz lortutako diruz besteko ondasunak edo eramaileari ordaintzeko bestelako instrumentuak aurreko paragrafoan aurreikusitako moduan besterentzea eta aplikatzea erabakiko du zigor-arloko epaile eskudunak.

Halaber, estatu emaileari transferitu ahalko zaizkio, baina haren adostasuna beharko da konfiskatzeari buruzko ebazpena eskudiruko kopuru bati buruzkoa bada.

Espainiako legeriarekin bat etorriz besterenduko dira ondasunak eta, hala dagokionean, Kontrabandoa Zigorrezko abenduaren 12ko 12/1995 Lege Organikoak eta hura garatzeko araudiak aurreikusitakoa beteko da.

3. Konfiskatzeko ebazpena betearaztearen ondorioz Espainiako ondare historikoko ondasunak eraginda gertatzen direnean, zigor-arloko epaileak ez dizkio estatu emaileari inola ere ez besterendu edo itzuliko. Horrelakoetan, Espainiako agintaritza eskudunei jakinaraziko die eta Espainiako Ondare Historikoaren ekainaren 25eko 16/1985 Legearen xedapenak eta hura garatzeko araudia aplikatuko dira.»

Hogeita bi. X. titularen ordeztu, honako idazpuru eta eduki hauek jarriko dira:

«X. TITULUA

Zigor-arloko Europako ikerketa-agindua

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

186. artikulua. *Europako ikerketa-agindua.*

1. Europako ikerketa-agindua zigor-arloko ebazpen bat da, Europar Batasuneko estatu kide bateko agintaritza eskudunak emana edo baliozkotua, zeina ematen baita beste estatu kide batean ikerketa-neurri bat edo batzuk aplikatzeko, zigor-arloko prozesu batean erabiltzekoak diren frogak lortze aldera. Halaber, Europako ikerketa-agindu bat eman ahalko da jada estatu kide betearazleko agintaritza eskudunaren esku dauden frogak edo ikerketa-diligentziak igortzeari begira.

Estatu betearazleak egindako ikerketa-ekintzak balioduntzat joko dira Espainian, baldin eta Espainiako ordenamendu juridikoaren oinarriko printzipioekin kontraesanean ez badaude edo ordenamendu horretan aitortutako berme prozesalen aurkakoak ez badira.

2. Europako ikerketa-agindua Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako agintaritza eskudunek, administratiboek zein judizialek, beren antolamenduan administrazio arau-hauste gisa tipifikatutako gertaerak egiteagatik hasitako prozedurei buruzkoa izan ahalko da, baldin eta erabakiak jurisdikzio-organoaren aurreko prozesu bat eragin badezake, bereziki zigor-arloan.

3. Europako ikerketa-aginduak ikerketa-neurri guztiak jaso ahalko ditu, salbu eta ikerketarako lantalde bateratua sortzea eta lantalde horretan frogak lortzea.

Aurrekoa gorabehera, ikerketarako lantalde bateratu batek behar duenean ikerketa-diligentziak egin daitezela lantaldean parte hartu ez duen estatu kide bateko lurraldean, Europako ikerketa-agindu bat eman ahalko zaie estatu horretako agintaritza eskudunei.

4. Europako ikerketa-aginduaren eremutik kanpo geratzen da zigor-arloko aurrekariak helarazteko araubidea, zeinak berriazko araudi bat izango baitu.

5. Banku-kontuei eta bestelako finantza-kontuei buruzko edo banku-eragiketei eta bestelako finantza-eragiketei buruzko informazioa lortzeko Europako ikerketa-aginduak eman eta betearazteari dagokionez:

a) Finantza-erakundetzat hartuko da kapitalen zuritzea eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeko legerian ezarritako definizioari egokitzen zaiona.

b) Kontuaren edo gordailuaren datutzat hartuko dira gutxienez ere titularraren izena eta helbidea, ordezkaritza-ahalmenen eta kontu horri buruzko erabiltze-ahalmenaren xehetasunak, titulartasun errealar buruzko datuak, eta titularrak, irekitzeko orduan edo geroztik, emandako gainerako beste edozein xehetasun edo dokumentu.

187. artikulua. *Europako ikerketa-agindu bat emateko eta betearazteko Espainiako agintaritza eskudunak.*

1. Europako ikerketa-agindu baten agintaritza emaileak dira epaileak edo epaitegiak, ikerketa-neurria hartu behar den zigor-arloko prozesua haien ardurapekoa bada edo prozedura epaitzeko fasean dagoela frogatuta badute.

Halaber, fiskalak agintaritza emaileak dira zuzentzen dituzten prozeduretan, baldin eta Europako ikerketa-agindua biltzen duen neurriak ez baditu oinarriko eskubideak mugatzen.

Ondore horietarako, aipatutako agintaritzak eskudunek Europako ikerketa-agindua eman ahalko dituzte Prozedura Kriminalaren Legearen eta Adingabeen Erantzukizun Penala arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/5000 Lege Organikoaren xedapenei jarraituz agindu edo betearaz litzaketen neurriak betearazteko.

2. Espainian, Ministerio Fiskala da beste estatu kide batzuetako agintaritzak eskudunek emandako Europako ikerketa-agindua jasotzeko agintaritzak eskuduna.

Behin erregistratu eta agintaritzak emaileari jaso-agiria bidali ondoren, Ministerio Fiskala Europako ikerketa-agindua aitortzen eta betearazpenaz arduratuko da, edo hura epaile eskudunari igorriko dio, honako arau hauen arabera:

a) Europako ikerketa-agindua ez baditu jasotzen oinarrizko eskubideak mugatzen dituen inongo neurririk, Ministerio Fiskala izango da eskuduna Europako ikerketa-agindua aitortu eta betearazteko.

b) Europako ikerketa-agindua oinarrizko eskubideak mugatzen dituen neurriren bat jasotzen bada eta neurri hori eskubide horiek murrizten ez dituen beste batez ezin bada ordeztu, Ministerio Fiskalak epaileari edo auzitegiari igorriko dio neurria, hark aitortu eta betearaz dezan. Halaber, Ministerio Fiskalak epaileari edo auzitegiari igorriko dio Europako ikerketa-agindua hark aitortu eta betearaz dezan, agintaritzak emaileak aginduan bertan berariaz adierazi badu ikerketa-neurria organo judizial batek betearazi behar duela.

Kasu horietan, Ministerio Fiskalaren nahitaezko txostena erantsiko da; txosten horretan agindua betearazteari uko egiteko arrazoia dagoen edo ez adieraziko da, bai eta agindua jasotzen dituen ikerketa-neurriak hartzea zuzenbidearekin bat datorren ere.

3. Aurreko apartatuko b) letraren ondoreetarako, honako hauek izango dira eskudunak:

a) Instrukzioko epaileak edo adingabeen epaileak, ikerketa-neurriak betearazi behar diren tokikoak, edo, subsidiarioki, delituarekin, ikertuarekin edo biktimarekin bestelako lurralde-konexiorik dagoen tokikoak. Eskumena zehazteko lurralde-konexioko inongo elementurik ez badago, instrukzioko epaile zentralak izango dira eskudunak.

b) Instrukzioko epaile zentralak, Europako ikerketa-agindua terrorismo delituagatik edo Auzitegi Nagusia epaitzeko eskumenduna den delituetako beste edozein delituegatik eman bazen edo 222. artikuluan aurreikusitako jakinarazpena bada.

c) Zigor-arloko epaile zentralak edo adingabeen epaile zentralak, estatu mailera eramanez gero Espainian askatasunaz gabetuta dauden pertsonak, 214. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ministerio Fiskalak egoki diren eginbideak gauzatu ahalko ditu, zehazte aldera zein epaile edo epaitegi eskudunari igorri behar zaion Europako ikerketa-agindua, hark betearaz dezan.

Ikerketa-neurria gauzatu behar den tokia bat-batean aldatzen bada, horrek ez du berekin ekarriko Europako ikerketa-agindua aitortzea eta betearaztea erabaki duen epaileak edo epaitegiak eskumena bat-batean galtzea.

Baldin eta Europako ikerketa-agindua hori eman bada toki desberdinetan gauzatu behar diren ikerketa-diligentzia batzuei dagokienez, agindua aitortzeko eta betearazteko epaile edo auzitegi eskuduna izango da Ministerio Fiskalak agindua igortzen diona; eskudun direnen artean aukeratuko du Ministerio Fiskalak nori bidali, apartatu honetan ezarritako arauen arabera, eta arau horietan aurreikusita ez dagoenerako, Prozedura Kriminalaren Legearen lehentasunezko arauen arabera.

Betearazpena egiteko epaile edo auzitegi eskudunak Ministerio Fiskalari emango dio ikerketa neurrien aitortzearen eta betearazpenaren berri, bai eta agintaritzak emaileari horiek bidali izanaren berri ere.

II. KAPITULUA

Europako ikerketa-agindu bat ematea eta helaraztea

1. atala. *Europako ikerketa-aginduak emateko eta helarazteko araubide orokorra*

188. artikulua. *Europako ikerketa-aginduaren edukia.*

1. Europako ikerketa-agindua XIII. eranskinean ageri den formularioan dokumentatuko da, informazio hau berariaz aipatuta:

- a) Agintaritza emailearen datuak.
- b) Europako ikerketa-aginduaren xedea eta arrazoiak.
- c) Ukitutako pertsonari edo pertsoneri buruz behar den informazioa.
- d) Ikerketaren edo prozesuaren xede den delitu-jokabidearen deskribapena eta Espainiako zigor-arloko zuzenbidean aplikatzekoak diren xedapenak.
- e) Eskatzen diren ikerketa-neurrien eta lortu beharreko frogen deskribapena.
- f) Estatu betearazleari betetzeko eskatzen zaizkion formaltasun, prozedura eta bermeak.

2. Espainiako agintaritza eskudunak lehendik eman den beste ikerketa-agindu baten osagarria den Europako ikerketa-agindu bat eman ahalko du, hori egitea beharrezkoa denean zigor-arloko prozesu bererako froga berriak lortzeko.

Europako ikerketa-agindu osagarria 1. apartatuan aipatutako moduan dokumentatuko da, eta XIII. eranskinaren formulario bereko D atalean adieraziko da nolako lotura duen aurreko aginduarekin.

Espainiako agintaritza eskudunak estatu betearazlean laguntzen duenean Europako ikerketa-agindua betearaz dadin, agindu osagarri bat zuzenean helarazi ahalko dio agintaritza betearazleari, estatu horretan dagoen bitartean.

189. artikulua. *Europako ikerketa-agindu bat emateko baldintzak.*

1. Agintaritza emaileak, ofizioz nahiz alderdi batek eskaturik, Europako ikerketa-agindu bat eman ahalko du honako baldintza hauek betetzen direnean:

- a) Europako ikerketa-agindua ematea beharrezkoa eta proportzionatua izatea eskatzen den prozeduraren xedeetarako, ikertuaren edo auzipetuaren eskubideak kontuan hartuta.
- b) Aitortu eta betearazteko eskatzen diren ikerketa-neurriak Europako ikerketa-agindua eman deneko Espainiako zigor-arloko prozesuan erabakita izatea, eta barneko antzeko kasu baterako baldintza berdinetan haiek agindu ahal izatea.

2. Espainiako agintaritza eskudunak aginduan adierazi ahalko du neurria betearazteko oro har aurreikusitakoa baino epe laburragoa behar dela, edo ikerketa-neurria data jakin batean gauzatu beharra dagoela. Eskari hori berariaz oinarrituko da epe prozesalean, delituaren larritasunean edo bereziki presakoak diren bestelako inguruabarretan.

190. artikulua. *Agintaritza betearazleari informazioa eskatzea.*

1. Espainiako agintaritza eskudunak agintaritza betearazleari eskatu ahalko dio geroratu gabe informazioa eman diezaiola, beharrezkoa denean, honako hauen inguruan:

- a) Uste baldin badu Europako ikerketa-aginduaren betearazpenerako egokia izan daitekeela aginduan aurreikusita ez dauden bestelako ikerketa-neurriak hartzea, agintaritza emaileak neurri berriak hartu ahal ditzan aztertzen ari den kasuan.

b) Ezin baditu bete berariaz adierazitako formaltasunak, prozedurak eta bermeak.

2. Espainiako agintaritza eskudunak estatu betearazleko agintaritza eskudunari kontsulta egin ahalko dio Europako ikerketa-aginduaren betearazpena errazteko.

191. artikulua. *Espainiako agintaritza eskudunaren parte-hartzea eskatzea.*

Espainiako agintaritza eskudunak, neurriaren egokitasunaren arrazoiak justifikatuta, eskatu ahalko du Espainiako agintaritza edo funtzionario batek edo batzuek parte har dezatela Europako ikerketa-aginduaren betearazpenean, agindua lurralde nazionalean betearazteko garaian presente egoteko aukera izango zuten modu berean. Europako ikerketa-aginduaren betearazpenean parte hartzen duen Espainiako agintaritzak edo funtzionarioak zuzenean jaso ahalko ditu estatu betearazleko agintaritzak lortu dituen frogak, baldin eta agindu horretan hala eskatu bada eta hori bidezkoa bada estatu betearazlearen zuzenbidearen arabera.

192. artikulua. *Agintaritza betearazlearekiko komunikazioa.*

Espainiako agintaritza eskudunak agintaritza betearazleari komunikatuko dio, hamar eguneko epean, Europako ikerketa-agindua erretiratu, aldatu edo osatu nahi duen, honako kasu hauetan:

a) Agintaritza betearazleak komunikatzen duenean Europako ikerketa-aginduak bilatzen duen emaitza lortu daitekeela agintaritza emaileak eskatutakoa bezain murriztailea ez den ikerketa-neurri baten bitartez.

b) Agintaritza betearazleak komunikatzen duenean eskatutako ikerketa-neurria ez dela existitzen bere zuzenbidean, edo ez dagoela aurreikusita antzekoa den barneko kasu baterako, baina eskatutako aginduaren xedeetarako egokia izan daitekeen bestelako neurri bat badagoela.

193. artikulua. *Europako ikerketa-agindua beste estatu kide batean betearaztean eskuratutako datu pertsonalak Espainian erabiltzea.*

1. Europako ikerketa-agindu bat betearaztean lortutako datu pertsonalak soilik erabili ahalko dira ebazpen hori erabaki den prozesuetan, haiekin zuzenean lotutako besteetan edo, salbuespenez, segurtasun publikoaren aurkako berehalako mehatxu larri bat prebenitzeko.

Espainiako agintaritza eskudunak estatu betearazleko agintaritzaren edo datuen titularraren baimena eskuratu beharko du lortutako datu pertsonalak beste helburu batzuetarako erabili nahi baditu.

2. Kasu jakin batean estatu betearazleko agintaritza eskudunak horrela eskatzen duenean, Espainiako agintaritza eskudunak jakinaraziko dio nola erabili dituen Europako ikerketa-aginduaren bitartez igorri zaizkion datu pertsonalak, alde batera utzita, halere, Espainian betearaztean lortutako datuak.

194. artikulua. *Konfidentzialtasuna Europako ikerketa-agindu bat ematean.*

Espainiako ordenamendu juridikoari jarraituz, eta agintaritza betearazleak besterik adierazi ezean, Espainiako agintaritza eskudunak ez du azalduko agintaritza betearazleak Espainiako prozeduran erabiltzeko eman duen inongo frogara edo informaziorik, salbu eta hura ematea beharrezkoa denean Europako ikerketa-aginduan deskribatuta dauden ikerketa edo prozeduretarako.

2. atala. *Berriazko ikerketa-neurriak jasotzen dituzten Europako ikerketa-aginduak ematea*

195. artikulua. *Europako ikerketa-agindu bat ematea estatu betearazlean askatasunaz gabetuta dauden pertsonak Espainiara aldi baterako ekarri ahal izateko.*

1. Estatu betearazlean askatasunaz gabetuta dagoen pertsona bat Espainiara aldi baterako ekartzeko Europako ikerketa-agindu bat emango du Espainiako agintaritza eskudunak noiz-eta ikerketagatik pertsona horri Espainian egoteko errekerimendua egiten zaionean; baina xedea ezin izango da izan hura epaitzea, horretarako atxilotzeko eta entregatzeko Europako agindua aukeratu beharko baita.

2. Espainiako agintaritza eskudunak beste estatuko agintaritza eskudunekin adostuko ditu askatasunaz gabetuta dagoenaren aldi baterako lekualdatzeari buruzko xedapen praktikoak, bai eta askatasunaz gabetuta egoteko baldintzen xehetasunak ere, horren barne direla irteteko eta itzultzeko datak, 12. eta 27. artikuluen aurreikuspenei jarraituz; eta bermatuko da kontuan hartzen dela kasuan kasuko pertsonaren egoera fisiko eta mentala, bai eta Espainian eskatutako segurtasun-maila ere.

3. Lekualdatutako pertsona Espainian askatasunaz gabetuta egongo da estatu betearazlean egoera horretan egon den egitate edo zigorrerengatik, estatu betearazleak aske uztea eskatzen ez badu.

4. Lekualdatutako pertsona ez da jazarria edo atxilotua izango edo bere askatasun pertsonalaren beste edozein murrizketaren pean egongo estatu betearazletik irten aurreko egintzerengatik edo zigorrerengatik, baldin eta haiak ez badaude Europako ikerketa-aginduan zehaztuta. Hala eta guztiz ere, immunitate hori eraginik gabe geratuko da lekualdatutako pertsonak, itzultzeko aukera izanda, Espainiako lurraldean geratu bada Espainiako agintaritza eskudunak haren presentzia jada eskatzen ez duen datatik hasita hurrengo hamabost egunetan, edo Espainiako lurraldetik alde egin ondoren bertara itzuli bada.

196. artikulua. *Europako ikerketa-agindu bat ematea Espainian askatasunaz gabetuta dauden pertsonak estatu betearazlera aldi baterako eramateko.*

Espainiako agintaritza eskudunak Europako ikerketa-agindu bat eman ahalko du Espainian atxilotuta dagoen pertsona bat aldi baterako lekualdatzeko, hain zuzen ere hura estatu betearazlearen lurraldean egotea eskatzen duen ikerketa-neurri bat aurrera eramateko, baina askatasunaz gabetutako pertsonak horretarako adostasuna adierazi beharko du. Horretarako, 214. artikuluan aurreikusitakoak aplikatuko dira.

197. artikulua. *Europako ikerketa-agindu bat ematea bideokonferentzia bidezko edo ikus-entzunezko beste transmisio modu batzuen bidezko agerraldi baterako.*

1. Espainian zigor-arloko prozesu batez arduratzen ari den Espainiako agintaritza eskudunak beharrezkotzat jotzen duenean ikertuari edo auzipetuari edo beste estatu kide bateko lurraldean dagoen lekuko edo peritu bati entzutea, Europako ikerketa-agindu bat emango du, deklarazio hori bideokonferentzia bidez edo ikus-entzunezko beste transmisio modu batzuen bidez egin dadin.

Horretarako, agintaritza betearazle eskudunarekin ados jarrita, xedapen praktiko batzuk zehaztuko dira, agerraldia haien arabera egin dadin.

Kasu jakinen batean agintaritza betearazleak ez baditu agerraldia bideokonferentzia bidez edo ikus-entzunezko beste transmisio modu batzuen bidez egiteko behar diren baliabide teknikoak, hura eskatu duen Espainiako agintaritza eskudunak baliabide horiek haren esku jarri ahalko ditu, aurrez ados jarrita.

198. artikulua. *Europako ikerketa-agindu bat ematea banku-kontuei edo bestelako finantza-kontuei buruzko informazioa lortzeko.*

1. Espainiako agintaritzak eskudunak Europako ikerketa-agindua eman ahalko du argitu behar duenean aribideko zigor-prozesu baten xedea den pertsona fisiko edo juridikoa beste estatu kide bateko lurraldeko banku- edo beste finantza-erakunde baten kontu edo gordailu baten edo gehiagoren titularra den edo haren gaineko kontrola daukan eta, hori horrela bada, datuak lortu nahi dituzenean oraindik ere pertsona horren esku dauden eta identifikatuta dauden kontu eta gordailuei buruz. Zigor-arloko prozesuen xede den pertsonak zer konturen gaineko ordezkartza-ahalmena duen jasoko da eskatutako informazioaren barruan, baldin eta Europako ikertzeko aginduan horrela eskatu bada.

2. Europako ikerketa-aginduan, honako hauek adieraziko dira: zergatik jotzen den eskatutako informazioa beharrezkoa dela kasuan kasuko zigor-prozesurako eta zergatik jotzen den kontua estatu betearazlearen bankuren edo finantza-erakunderen batean dagoela; eta, informazio hori dagoen guztietan, zein banku edo finantza-erakunde den jasoko da. Halaber, Europako ikerketa-aginduan jasoko da haren betearazpena erraz dezakeen informazio oro.

199. artikulua. *Europako ikerketa-agindu bat ematea banku-eragiketei edo bestelako finantza-eragiketei buruzko informazioa lortzeko.*

Espainiako agintaritzak eskudunak Europako ikerketa-agindu bat eman ahalko du oraindik ere bankuren edo beste finantza-erakunderen baten esku dauden honako datu hauek lortzeko:

- a) Berariazko banku-kontuak.
- b) Aginduan aipatutako kontu baten edo batzuen bidez egin diren edo epe jakin batean egingo diren banku-eragiketak, kontu igorle edo hartzaile ororen datuak jasoz.
- c) Bankuak ez diren finantza-erakundeek egindako finantza-eragiketak.

Aginduan adieraziko da zergatik jotzen den eskatutako informazioa bidezkoa dela kasuan kasuko zigor-prozesurako.

200. artikulua. *Europako ikerketa-agindu bat ematea frogak denbora errealean, modu jarraituan eta epe jakin batez, jasotzeko.*

Espainian zigor-arloko prozesu batez arduratzen ari den agintaritzak eskudunak beharrezkotzat jotzen duenean Europako ikerketa-agindu bat ematea frogak denbora errealean, modu jarraituan eta epe jakin batez, lortzea eskatzen duen ikerketa-neurria betearaztearen ondoretarako, adieraziko du zergatik uste duen eskatutako informazioa bidezkoa dela aribideko zigor-arloko prozesurako.

201. artikulua. *Europako ikerketa-agindu bat ematea ezkutuko ikerketak egiteko.*

Agintaritzak eskudunak beharrezkotzat jotzen duenean beste estatu kide bateko agintaritzak eskudunek lankidetzan jardun dezatela delitu-izaerako jarduera baten edo batzuen ezkutuko ikerketan, infiltratuta edo identitate faltsu batekin diharduten agenteen bitartez, Europako ikerketa-agindu bat emango du lankidetzan hori eskatzeko, eta ezkutuko ikerketa egitea bidezkoa dela uste izateko arrazoiak adieraziko ditu.

202. artikulua. *Europako ikerketa-agindu bat ematea telekomunikazioak kontrolpean hartzeko.*

1. Europako agintaritzak eskudunak Europako ikerketa-agindu bat emango du, Prozedura Kriminalaren Legaren arabera emandako auto batez erabakia hartu ondoren, bidezkoa denean beste estatu kide batean komunikazioak kontrolpean

hartzea eta behar denean estatu horren laguntza teknikoa. Eskatutako neurriak barne hartu ahalko du, halaber, komunikazio horiei buruzko trafiko- eta kokapen-datuak lortzea.

2. Eskatutako laguntza teknikoa estatu kide batek baino gehiagok eman ahal dutenean, horietako bakar bati bidaliko zaio Europako ikerketa-agindua. Horretarako, lehentasuna emango zaio beti ikertzen edo auzipetzen ari den pertsona dagoen edo egotekoa den estatu kideari.

3. Espainiako agintaritzak eskudunak agintaritzak betearazlearekin adostu ahalko du telekomunikazioak kontrolpean har daitezzen honako bi modalitate hauetako baten arabera:

- a) Telekomunikazioa zuzenean transmitituz estatu emaileari.
- b) Telekomunikazioa estatu betearazlean kontrolpean hartuz eta erregistratuz, behin erregistratu ondoren emaitza estatu igorleari helarazteko.

Espainiako agintaritzak eskudunak kontsulta egin ahalko du eta agintaritzak betearazleak Espainiako agintaritzak eskudunari kontsulta egin ahalko dio Europako ikerketa-agindua betearazteko moduaren hautaketari buruz.

4. Telekomunikazioak kontrolpean hartzeko emandako Europako ikerketa-aginduak honako hauek zehaztu beharko ditu:

- a) Telekomunikazioak kontrolpean hartzea zein arrazoiengatik den beharrezkoa zigor-arloko prozesuaren xedeetarako.
- b) Telekomunikazioak kontrolpean hartzeak ukitzen duen pertsona identifikatzeko behar den informazioa.
- c) Telekomunikazioak kontrolpean hartzeko jardueraren iraupena.
- d) Eskaera betearazi ahalko dela bermatzeko behar diren datu teknikoak; bereziki, pertsonaren identifikatzailea.

5. Erregistroaren transkripzioa, deskodetzea edo desenkriptatzea eskatu ahalko da Europako ikerketa-aginduan. Eskaera hori, halaber, telekomunikazioak kontrolpean dauden bitartean egin ahalko da. Bi kasuetan, transkripzioa, deskodetzea edo desenkriptatzea agintaritzak betearazlearekin adostu beharko dira.

203. artikulua. *Europako ikerketa-agindu bat ematea frogatuzko neurriak hartzeko edo frogabideekin lotutako ikerketa-diligentziak egiteko.*

Espainiako agintaritzak eskudunak Europako ikerketa-agindu bat eman ahalko du, kautelaz eragozte aldera frogabide gisa erabil litekeen objektu baten suntsitzea, eraldatzea, lekualdatzea, transferentzia edo besterentzea.

Europako ikerketa-aginduan adieraziko da frogabidea Espainiari transferitu beharko zaion edo estatu betearazlean kontserbatu beharko den.

Europako ikerketa-aginduan eskatzen denean frogabidea estatu betearazlean gorde dadila, adieraziko da zein datatan altxatu beharko den premiatutako kautelazko neurria, edo froga Espainiara eramateko eskaera zein datatan egingo dela kalkulatu den.

Berehala jakinaraziko zaio agintaritzak betearazleari premiatu diren behin-behineko neurriak kendu direla.

204. artikulua. *Zigor-arloko prozeduren xedea den pertsona zein estatu kideetan dagoen, estatu horrentzako jakinarazpena, estatu horren laguntza teknikoa behar ez denean.*

1. Espainiako agintaritzak eskudunak erabaki duenean beste estatu kide baten lurraldean dagoen pertsona baten telekomunikazioak kontrolpean hartzea estatu

horren laguntza teknikorik gabe, estatu horren agintaritza eskudunari jakinaraziko dio. Jakinarazpen hori honela egingo da:

- a) Telekomunikazioak kontrolpean hartu baino lehen, jakiten denean pertsona hori beste estatu kide bateko lurraldean dagoela edo egongo dela.
- b) Telekomunikazioak kontrolpean hartzen ari diren bitartean edo hartu ondoren, jakin bezain laster pertsona hori beste estatu kide bateko lurraldean dagoela edo egon dela haren telekomunikazioak kontrolpean hartuak izan diren bitartean.

Jakinarazpen hori XV. eranskineko formularioaren bidez egingo da.

2. Telekomunikazioak kontrolpean hartzea erabaki duen Espainiako agintaritza eskudunak ez du hura gauzatuko edo amaiera emango dio jakinarazpena jaso duen estatuko agintaritza eskudunak horrela egiteko eskatzen badu. Halaber, Espainiako agintaritza eskudunak kontrolpean hartutako materiala soilik erabili ahalko du jakinarazpena jaso duen estatuak zehaztutako baldintzetan.

Baldin eta jakinarazpena jaso duen estatuko agintaritza eskudunak informatzen badu lortutako materiala ezin dela erabili, Espainiako agintaritza eskudunak hura suntsitzeko aginduko du.

III. KAPITULUA

Europako ikerketa-agindu bat aitortzea eta betearaztea

1. atala Europako ikerketa-aginduak aitortzeari eta betearazteari buruzko araubide orokorra

205. artikulua. *Europako ikerketa-agindu bat Espainian aitortu eta betearazteko baldintzak.*

1. Europako ikerketa-agindu bat jasotzen duen Espainiako agintaritza eskudunak hura aitortzeko eta betearazteko auto edo dekretu bat emango du, salbu eta 207. eta 209. artikuluetan aipatzen diren uko- edo etete-arrazoietako bat gertatzen denean.

2. Agintaritza emaile eskudunak eman ez duen edo, kasua bada, estatu emaileko epaile, epaitegi edo fiskal eskudunak baliozkotu ez duen Europako ikerketa-agindu bat jasotzen duen Espainiako agintaritza eskudunak agindu hori itzuli egingo du.

206. artikulua. *Europako ikerketa-aginduan eskatutako ikerketa-neurriak betearaztea.*

1. Eskatutako ikerketa-neurria Espainiako agintaritza eskudunak eramango du aurrera, baldin eta ikerketa-neurri hori Espainiako zuzenbidean existitzen bada eta antzekoa den barneko antzeko kasu baterako aurreikusita badago.

Bereziki, hurrengo artikuluan xedatutakoa ezertan eragotzi gabe, agintaritza eskudunak betearazpena aginduko du, nolana ere, baldin eta eskatutako ikerketa-neurria hauetakoren bat bada:

a) Jada Espainiako agintaritza eskudunak dauzkan informazioa edo frogak lortzea, baldin eta, nazioko zuzenbidearen arabera, informazio edo frogak horiek zigor-arloko prozedura baten testuinguruan lortu badira edo Europako ikerketa-aginduaren xedeetarako lortu badira;

b) agintaritza polizial edo judizialen esku dauden datu-baseetan dagoen informazioa lortzea, zigor-arloko prozedura baten esparruan zuzenean eskuratu baitaiteke;

- c) lekuko, peritu, biktima, ikertu edo auzipetu baten edo hirugarren baten deklarazioa, Espainiako lurraldean;
- d) Espainiako zuzenbidean aurreikusita dagoen eta oinarrizko eskubideak eta berme prozesalak murrizten ez dituen edozein ikerketa-neurri;
- e) telefono-zenbaki edo IP helbide jakin batzuen titularrak diren pertsonen identifikazioa.

2. Europako ikerketa-aginduak bilatzen duen emaitza lortu daitekeenean halako ikerketa-neurri bat aplikatuz, zeinak oinarrizko eskubideak gutxiago murrizten baititu Europako ikerketa-aginduan eskatutakoak baino, Espainiako agintaritza eskudunak azken hori betearazteko aginduko du.

3. Eskatutako ikerketa-neurria ez denean Espainiako zuzenbidean existitzen edo ez dagoenean aurreikusita antzekoa den barneko kasu baterako, Espainiako agintaritza eskudunak aginduko du eskatutakoaz beste ikerketa-neurri bat betearaz dadin, baldin eta neurri hori egokia bada eskatutako aginduaren xedeetarako.

4. 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako kasuetan, ebazpena eman baino lehen, agintaritza eskudunak agintaritza emailea informatuko du. Baldin eta agintaritza emaileak ez badu hamar eguneko epean komunikatzen Europako ikerketa-agindua erretiratzeko edo osatzeko erabakia, agintaritza betearazleak aginduko du aukerako ikerketa-neurria betearaz dadin.

5. Europako ikerketa-aginduan jasotako ikerketa-neurria ez denean existitzen nazioko zuzenbidean, edo, existituta ere, ezin izan denean hartu antzekoa den barneko kasu batean, eta, gainera, ez dagoenean beste ikerketa-neurririk eskatutako ikerketa-neurriaren emaitza bera eman dezakeenik, Espainiako agintaritza eskudunak estatu emaileko agintaritzari jakinaraziko dio ezin izan dela eskatutako laguntza eman.

207. artikulua. *Europako ikerketa-agindu baten aitorpena edo betearazpena ukatzea.*

1. Espainiako agintaritza eskudunak Europako ikerketa-aginduaren betearazpena ukatuko du 32. artikulua 1. apartatuko kasuetan ez ezik, honako kasu hauetan ere:

a) Pribilegio prozesal bat badago ezinezko egiten duena Europako ikerketa-agindua betearaztea edo zigor-arloko erantzukizuna zehazteari eta mugatzeari buruzko arauak badaude, prentsa askatasunari eta beste hedabide batzuetako adierazpen askatasunari dagokionez, hartara Espainiako agintaritza eskudunari hura betearaztea eragozten diotena.

b) Betearazteak segurtasun nazionalako funtsezko interesak kaltetu baditzake, informazio-iturria arriskuan jar badezake edo inteligentziaren jardura jakin batzuekin lotutako informazio sailkatua erabiltzea ekar badezake.

c) Ebazpena estatu emailetik kanpo eta Espainiako lurraldean guztiz edo partzialki izan diren gertakariei buruzkoa bada, eta Europako ikerketa-agindua emateko arrazoa izan den jokabidea Espainian delitua ez bada.

d) Arrazoi oinarridunak badaude sinesteko Europako ikerketa-aginduan adierazitako ikerketa-neurria betearaztea bateraezina dela Espainiako Estatuaren betebeharrekin, Europar Batasunaren Itunaren 6. artikuluari eta Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunari jarraituz.

e) Europako ikerketa-agindua ematea eragin zuen jokabidea delitua ez bada Espainiako zuzenbidearen arabera eta jasota ez badago 20. artikulua 1. apartatuak aipatzen dituen delitu-kategorietan; baldin eta Europako ikerketa-aginduak aipatzen duen deliturako estatu emailean aurreikusitako zigorra edo askatasunaz gabetzeko segurtasun-neurria gehienez ere hiru urtekoa bada

Egiaztatzeko jokabide hori 20. artikulua 1. apartatuan aipatutako delituen artean dagoela eta arestian aipatutako zigor-atalasera iristen dela, estatu emaileko agintaritzak igorritako emate-formularioan aipatutakoari begiratuko zaio.

f) Europako ikerketa-aginduan aipatutako ikerketa-neurriaren erabilera mugatuta badago, Espainiako zuzenbidearen arabera, delituen zerrenda edo kategoria batera edo atalase jakin batetik aurrerako zigorra ezartzen zaien beste delitu batzuetara, hau da, Europako ikerketa aginduak jasotako delitura iristen ez den atalase jakin batetik aurrerako zigorra.

g) Europako ikerketa-agindua Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako agintaritzak eskudunek beren antolamenduan administrazio arau-hauste gisa tipifikatutako gertaerak egiteagatik hasitako prozedurei buruzkoa bada eta erabakiak zigor-arloko jurisdikzio-organoaren aurreko prozesu bat eragin badezake, eta neurria baimenduta ez badago estatu betearazleko zuzenbidearen arabera, antzekoa den barneko kasu baterako.

2. Aurreko apartatuko e) eta f) letrak ez zaizkie aplikatuko, inolaz ere, 206. artikulua 1. apartatuak aipatzen dituen ikerketa-neurriei.

3. 32. artikulua 1. apartatuaren a) edo d) letretan edo artikulua honen 1. apartatuaren a), b), c) edo d) letretan aitortpena eta betearazpena ukatzeko aurreikusitako arrazoiren bat egonez gero, Europako ikerketa-aginduen aitortpena eta betearazpena partzialki edo guztiz ukatu aurretik, Espainiako agintaritzak eskudunak agintaritzak emaileari eskatuko dio behar den informazio osagarria bidal diezaion eta, hala badagokio, egindako okerra zuzen dezan.

208. artikulua. *Europako ikerketa-agindua aitortzeko eta betearazteko prozedura.*

1. Europako ikerketa-agindua jasotzen duen Espainiako agintaritzak eskudunak ez badu ikusten agindua ukatzeko edo eteteko inongo arrazoirik, geroratu gabe, autoa edo dekretua emango du, hurrenez hurren, zeinean legez eskatutako baldintzak betetzen direla aitortuko baitu eta agindua betearaz dadin aginduko. Autoak edo dekretuak eskatutako ikerketa-neurriak gauzatzeko behar diren jarraibideak jasoko ditu.

Europako ikerketa-agindua aitortu eta betearazteko edo, kasua bada, haren betearaztea ukatzeko erabakia lehenbailehen hartu beharko da, eta beranduenez hogeita hamar eguneko epean, agintaritzak eskudunak hura jasotzen duenetik hasita.

2. Kasu jakin batean Espainiako agintaritzak eskudunak uste badu ezin izango dela agindua aitortzeko eta betearazteko autoa edo dekretua, hurrenez hurren, emateko aurreikusita dagoen epea bete, geroratu gabe informatuko du agintaritzak emailea, ezintasun horretarako arrazoiak azalduko dizkio eta ebazpena emateko beharrezkoa dela aurreikusten duen epea komunikatuko. Kasu horretan, aitortzeko eta betearazteko ebazpena emateko ezarritako epea gehienez ere hogeita hamar egunetz luzatu ahalko da.

3. Estatu emaileak Europako ikerketa-agindu bat betearaztean parte hartzen badu eta aurrekoaren osagarria den agindu bat ematen badu, Espainiako agintaritzak eskudunak zuzenean jaso ahalko du agintaritzak emaileak Espainian dagoen bitartean ematen duen agindu osagarria.

4. Espainiako agintaritzak eskudunak ikerketa-neurria geroratu gabe betearaziko du, gehienez ere aitortzeko eta betearazteko ebazpena eman eta laurogeita hamar eguneko epean, non eta, 209. artikuluan xedatutakoaren arabera, arrazoiren bat ez dagoen aitortzeko edo betearazteko prozedura eteteko edo Europako ikerketa-aginduan jasotako ikerketa-neurrian aipatutako frogak ez dagoen jada Espainiako Estatuaren esku.

5. Agintaritzak emaileak aginduan adierazi badu ezen, epe prozesalengatik, delituen larritasunarengatik edo bereziki presakoak diren beste inguruabar batzuegatik, epe laburragoa behar dela neurria betearazteko, edo ikerketa-neurria data jakin batean gauzatu behar bada, Espainiako agintaritzak eskudunak aginduan xedatutakoa bete beharko du epe horiei dagokienez. Hori ezinezkoa bada, agintaritzak emaileari komunikatuko dio geroratu gabe.

6. Halaber, kasu jakin batean ezin bada ikerketa-neurria betearazi horretarako ezarrita dagoen epean, Espainiako agintaritza eskudunak geroratu gabe informatuko du estatu emailearen agintaritza eskuduna, geroratzearen arrazoiak emango dizkio, eta agintaritza emaileari kontsulta egingo dio ikerketa-neurria betearazteko epe edo data egokiei buruz.

209. artikulua. *Europako ikerketa-agindu baten aitortpena eta betearazpena etetea.*

1. Espainiako agintaritza eskudunak Europako ikerketa-agindu baten aitortpena eta betearazpena etengo ditu honako kasu hauetakoren bat gertatzen denean:

a) Haren betearazpenak bidean dauden zigor-ikerketa edo jarduketa judizialei kalte egin badiezaieke, harik eta beharrezkotzat jotzen den arte.

b) Kasuan kasuko objektuak, dokumentuak edo datuak beste prozedura batzuetan erabiltzen ari badira, harik eta xede horretarako jada behar ez dituzten arte.

2. Etetea eragin zuten kausak desagertutakoan, Espainiako agintaritza eskudunak behar diren neurriak hartuko ditu Europako ikerketa-agindua betearazteko, eta geroratu gabe informatuko du estatu emaileko agintaritza eskuduna.

210. artikulua. *Estatu emaileko agintaritzen parte-hartzea Espainiako lurraldean burutuko diren diligentzietan.*

1. Agintaritza emaileak eskatzen badu bere estatuko agintaritza batek edo batzuek parte har dezatela Europako agindua betearaztean, Espainiako agintaritza eskudunak baiezkoa emango du agintaritza horiek ahalmena badute aginduan eskatutako ikerketa-neurrien betearaztean parte hartzeko beren estatuko antzekoa den barneko kasu batean eta parte-hartze hori oinarritzeko printzipio juridikoen aurkakoa ez bada eta segurtasun nazionalaren funtsezko interesak kaltetzen ez baditu.

Agintaritza horiek Espainiako funtzionario publikotzat hartuko dira zigor-arloko ondoreetarako, Espainian Europako ikerketa-aginduaren betearazpenean parte hartzen ari diren bitartean. Agente estaliaren kasuan, estatu emailearekin adostuko dira ezkutuko ikerketaren iraupena, ikerketa horren baldintza zehatzak eta kasuan kasuko agenteen araubide juridikoa, dena delako barneko zuzenbideak eta prozedura nazionalak aintzat hartuta.

2. Europako ikerketa-agindua betearazten parte hartzen duten estatu emaileko agintaritzak Espainiako zuzenbidearen pean geratuko dira, eta Espainiako lurraldean gaitasun hertsatzaileaz baliatu ahalko dira soilik gaitasun horretaz baliatzea Espainiako zuzenbidearen arabera bada, eta soil-soilik bi agintaritzek hala adostu baldin badute.

3. Espainiako agintaritza eskudunak estatu emaileko agintaritza eskudunari edozein unetan kontsulta egin ahalko dio Europako ikerketa-aginduaren betearazpena errazteko.

211. artikulua. *Lortutako frogak helaraztea.*

1. Lortutako frogak berehala helaraziko zaizkio estatu emaileko agintaritzari, eta, hala dagokionean, adieraziko da Espainiako agintaritza eskudunari itzuli behar zaizkiela estatu emailean beharrezkoak izateari utzi bezain laster.

Baldin eta estatu emaileak parte hartzen badu agindua betearazten, betiere aginduan hala eskatu denean eta Espainiako zuzenbidearen arabera bada, lortutako frogak berehala helaraziko zaizkie estatu emaileko agintaritza eskudunari.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, lortutako proben helarazpena etetea erabaki ahalko da aginduaren aitortpenaren eta betearazpenaren aurkako errekursoa aurkeztu den kasuetan, salbu eta aginduan behar adina arrazoi ematen

badira justifikatzen dutenak ezinbestekoa dela frogak berehala helaraztea ikerketa egoki gauza dadin edo banakakoen eskubideak babes daitezen. Hala eta guztiz ere, frogen helaraztea etengo da baldin eta horrek kalte larria eta atzeraezina eragin badiezaioke pertsona interesdunari.

3. Lortutako frogak zigor-arloko beste prozesu batzuetarako garrantzitsuak direnean, Espainiako agintaritza eskudunak, berariazko eskaria egin eta agintaritza emailearekin kontsultak egin ondoren, frogak aldi baterako helarazi ahalko ditu, honako baldintza honekin: frogak horiek Espainiako agintaritza eskudunei itzuli beharko dizkio estatu emaileak haien beharra izateari utzi bezain laster edo agintaritza eskudunen artean adosten den beste edozein une edo kasutan.

212. artikulua. *Europako ikerketa-agindua betearazteari buruzko berariazko informazioa.*

1. Ministerio Fiskalak, Europako ikerketa-agindua jaso ondoren, hura hartu izanaren agiria igorriko du jaso eta gehienez ere astebeteko epean, XIV. eranskina betez.

2. 206. artikulua 4. eta 5. apartatuetan xedatutakoa gorabehera, betearazteaz arduratzen den Espainiako agintaritza eskudunak hurrengo kasuetan, geroratu gabe, informatuko du agintaritza emailea:

a) Aitortzeko eta betearazteko ebazpen bat ezin bada hartu, XIII. eranskineko formularioa osatu gabe egoteagatik edo nabarmen okerra izateagatik, edo gaztelaniara edo Espainian onartuta dagoen hizkuntzetako batera itzulita ez egoteagatik.

b) Uste beste aginduan aurreikusita ez dauden beste ikerketa-neurri batzuk aurrera eramatea egokia izan daitekeela Europako ikerketa-agindua betearazteko, kasua hori denean, agintaritza emaileak neurri berriak hartu ahal izan ditzan.

c) Ezin baditu bete berariaz adierazitako formaltasunak, prozedurak eta bermeak.

d) 206. 207. eta 209. artikuluetan xedatutakoaren arabera hartutako edozein ebazpen.

213. artikulua. *Konfidentzialtasuna gordetzea Europako ikerketa-agindu bat betearaztean.*

Europako ikerketa-agindu bat betearazten duenean, Espainiako agintaritza eskudunak egitateen eta haren muinaren gaineko konfidentzialtasuna gorde beharko ditu, ikerketa-neurria betearazteko behar den heinean izan ezik, eta edozein publizitate egin baino lehen estatu emaileko agintaritzari kontsulta egin beharko dio.

2. atala. *Berariazko ikerketa-neurriak dituzten Europako ikerketa-aginduak aitortzea eta betearaztea*

214. artikulua. *Europako ikerketa-agindu bat betearaztea Espainian askatasunaz gabetuta dauden pertsonak estatu emailean aldi baterako eramateko.*

1. Espainiako agintaritza eskudunak ezezkola emango dio Espainian askatasunaz gabetuta dauden pertsonak aldi baterako lekualdatzeko Europako ikerketa-agindu bat betearazteari, 32. artikulua 1. apartatuan eta 208. artikuluan ezarritako kasuetan ez ezik, honako kasu honetan ere:

a) Askatasunaz gabetuta dagoen pertsona adostasuna ematen ez badu. Adina edo egoera fisikoa edo psikikoa dela eta, iritzia ematerik ez badu, haren legezko ordezkariaren bitartez bilduko da hori.

b) Lekualdatzeak berekin ekar badezake askatasunaz gabetzea luza dadila.

2. Espainiako agintaritzak eskudunak beste estatuko agintaritzak eskudunekin adostuko dituen askatasunaz gabetuta dagoenaren aldi baterako lekualdatzeari buruzko xedapen praktikoak, bai eta askatasunaz gabetuta egoteko baldintzen xehetasunak ere, horren barne direla irteteko eta itzultzeko datak, 12. eta 27. artikuluen aurreikuspenei jarraituz; eta bermatuko da kontuan hartzen dela kasuan kasuko pertsonaren egoera fisiko eta mentala, bai eta estatu emailean eskatutako segurtasun-maila ere.

3. Espainiako agintaritzak eskudunak, ofizioz edo alderdi batek edo Ministerio Fiskalak eskatuta, erreklamaturik betetzen ari den edo beteko duen espetxealdia gehieneko denboratik kenduko du Europako ikerketa-agindua batengatik estatu emaileko lurraldean askatasunaz gabetuta dagoen aldi oro.

215. artikulua. *Europako ikerketa-agindua bat betearaztea estatu emailean askatasunaz gabetuta dauden pertsonak Espainiara aldi baterako ekartzeko.*

Espainiako agintaritzak eskudunak estatu emailean askatasunaz gabetuta dauden pertsonak aldi baterako Espainiara ekartzeko Europako ikerketa-agindua baten betearazpena ukatuko du, 32. artikuluan 1. apartatuan eta 207. artikuluan ezarritako kasuetan ez ezik, askatasunaz gabetuta dagoen pertsonak adostasuna ematen ez duenean ere. Adina edo egoera fisikoa edo psikikoa dela-eta iritzia ematerik ez badu, haren legezko ordezkariaren bitartez bilduko da hori.

Gainerakoan, estatu emailean askatasunaz gabetuta dauden pertsonak Espainiara aldi baterako ekartze aldera Europako ikerketa-agindua emateko 214. artikulua xedatutakoa beteko da.

216. artikulua. *Europako ikerketa-agindua bat betearaztea bideokonferentzia bidezko edo ikus-entzunezko beste transmisio modu batzuen bidezko agerraldi baterako.*

1. Espainiako agintaritzak eskudunak bideokonferentzia bidezko edo ikus-entzunezko beste transmisio modu batzuen bidezko agerraldi bat egiteko Europako ikerketa-agindua baten betearazpena ukatuko du 32. artikuluan 1. apartatuan eta 207. artikuluan ezarritako kasuetan ez ezik, ikerketa-neurri horren betearaztea kasu zehatz batean Espainiako zuzenbidearen oinarriko printzipio juridikoen aurkakoa denean ere.

Halaber, aitortpena eta betearazpena ukatu ahalko du ikertuak edo akusatatuak neurria gauzatzeari adostasuna ematen ez badio.

2. Espainiako agintaritzak eskudunak Europako ikerketa-agindua bat jasotzen badu zeinean eskatzen baita bideokonferentzia bidezko edo ikus-entzunezko beste transmisio modu batzuen bidezko agerraldi bat, hura gauzatu du agintaritzak emailearekin adostu duen moduan. Nolanahi ere, Espainiako agintaritzak eskudunaren ardura izango da:

a) Neurria jakinaraztea kasuan kasuko lekukoari edo perituarri, eta agerraldiaren unea eta tokia adieraztea.

b) Ikertuei edo auzipetuei hitzordua ematea agerraldira joateko, Espainiako zuzenbideak ezartzen dituen arauen arabera, eta dituzten eskubideen berri ematea, estatu emaileko zuzenbidearen arabera, berme prozesalak egiazki eduki ahal izateko behar den denboraz.

c) Deklarazioa eman behar duen pertsonaren identitatea segurtatzea.

3. Espainiako agintaritzak eskuduna agintaritzak emailearekin ados jarriko da neurria betearazteari buruz; nolahi ere, honako arau hauek bete beharko dira:

a) Deklarazioan Espainiako agintaritzak eskuduna egongo da presente, beharrezkoa denean interprete baten laguntzarekin, deklarazioa eman behar duen pertsona identifikatzeko eta Espainiako ordenamendu juridikoa betetzen dela zaintzeko.

- b) Espainiako agintaritza eskudunak agintaritza emailearekin adostuko ditu, kasua bada, deklaratu behar duen pertsona babesteko neurriak.
- c) Deklarazioa estatu emaileko agintaritza eskudunaren aurrean izango da, edo haren zuzendaritzaren pean.
- d) Agintaritza emaileak edo agerraldia egiten duen pertsonak hala eskatzen duenean, Espainiako agintaritzak interprete bat jarri beharko du hari laguntzeko.
- e) Deklarazioa baino lehen, lekukoei edo perituei dituzten eskubide prozesalen berri emango zaie, hau da, estatu emaileko eta Espainiako Estatuko zuzenbidearen arabera dauzkaten eskubideen berri, horren barne dela ez deklaratzeko eskubidea, hala xedatuta dagoenean.

4. Deklarazioa amaituta, neurria betearazi den lurraldeko Espainiako agintaritzak haren akta jasoko du, eta bertan honako hauek adieraziko ditu: data eta tokia; entzunaldia egin zaion pertsonaren identitatea; parte hartu duten gainerako pertsonen identitatea, eta egindako zina eta deklarazioa zein baldintza teknikotan gauzatu den. Akta estatu emaileko agintaritza eskudunari helaraziko zaio.

5. Baldin eta Europako ikerketa-agindu bat betetzeko Espainian entzunaldia eman behar zaion pertsonak ez badu lekukotza ematen, lekukotza emateko betebeharra izan arren, edo egiazko lekukotza ematen ez badu, Espainiako ordenamendu juridikoa aplikatuko zaio agerraldia prozesu nazional baten barruan egin izan balitz bezala.

217. artikulua. *Europako ikerketa-agindu bat betetzea banku-kontuei edo bestelako finantza-kontuei buruzko informazioa lortzeko.*

Espainiako agintaritza eskudunak banku-kontuei edo bestelako finantza-kontuei buruzko informazioa eskatzen duen Europako ikerketa-agindu bat jasotzen duenean, informazio hori emango du Espainiako zuzenbidearen arabera, finantza-entitateak informazio hori ez duenean izan ezik. Agintaritza emaileari eman beharreko informazioak beti jasoko ditu, Europako ikerketa-aginduak horrela eskatzen duenean, zigor-prozesuen xedea den pertsonak zein konturen gaineko ordezkaritza-ahalmenak dauzkan, kontu horiek.

Europako ikerketa-aginduaren aitortzea eta betearazpena ukatzeko 32. artikuluan 1. apartatuan eta 207. artikuluan aurreikusitako arrazoiengatik ez ezik, Espainiako agintaritza eskudunak aitortzea eta betearazpena ukatuko du barneko antzeko kasu batean ikerketa-neurri hori bera baimentzen ez duenean ere.

Espainiako agintaritza eskudunak behar diren neurriak hartuko ditu bermatze aldera bankuek edo finantza-entitateek ez diezaiotela adieraz, ez banku-bezero interesdunari, ez bestelako hirugarrenei ere, informazioa estatu emaileari helarazi zaiola artikulua honetan eta hurrengoan ezarritakoarekin bat, edo ikerketa bat egiten ari dela; horretarako, Finantza Titulartasunen Fitxategian dagoen informazioa erabili ahalko dute, baldin eta kapitalak zuritzeari edo terrorismoa finantzatzeari buruzko delituen ikerketak badira.

218. artikulua. *Europako ikerketa-agindu bat betearaztea banku-eragiketei edo bestelako finantza-eragiketei buruzko informazioa lortzeko.*

Europako ikerketa agindu bat aitortu eta betearazteko eskumena duen Espainiako agintaritzak banku-eragiketei edo bestelako finantza-eragiketei buruzko informazioa emango du Espainiako zuzenbidean ezarritakoaren arabera; baldin eta dena delako finantza-entitateak informazio hori badu.

199. artikuluan c) letraren kasuan, aitortzea eta betearazpena ukatzeko lege honetan jasotako arrazoiengatik ez ezik, Espainiako agintaritza eskudunak Europako ikerketa-aginduaren betearazpena ukatuko du barneko antzeko kasuetan ikerketa-neurria baimentzen ez duenean ere.

219. artikulua. *Europako ikerketa-agindu bat betearaztea frogak denbora errealean, modu jarraituan eta epe jakin batez, lortzeko.*

1. Agintaritza eskudunak Europako ikerketa-agindu bat jasotzen duenean frogak denbora errealean, modu jarraituan eta epe jakin batez, lortzea eskatzen duen ikerketa-neurri bat aplikatzeko, haren betearazpena ukatuko du 32. artikulua 1. apartatua eta 207. artikuluan aurreikusitako arrazoiengatik ez ezik, barneko antzeko kasu batean ikerketa-neurri hori bera baimentzen ez duenean ere.

2. Artikulu honetan aurreikusitako neurrietako bat aurrera eramateko Europako ikerketa-agindu bat jasotzen duen agintaritza eskuduna izango da hura betearaztearekin lotutako eragiketetan jarduteko eta jarduketa horiek zuzendu eta kontrolatzeko eskuduna dena; alabaina, estatu emaileko agintaritza eskudunarekin adostuko ditu xedapen praktikoak.

220. artikulua. *Europako ikerketa-agindu bat betetzea ezkutuko ikerketak egiteko.*

1. Agintaritza eskudunak Europako ikerketa-agindu bat jasotzen duenean Espainian ezkutuko ikerketa bat egiteko haren lankidetzat eskatzeko, haren betearazpena ukatuko du 32. artikulua 1. apartatua eta 207. artikuluan aurreikusitako arrazoiengatik ez ezik, honako kasu hauetan ere:

- a) Ezkutuko ikerketak egitea ez bada baimentzen barneko antzeko kasuetan.
- b) Akordio batera iristen ez bada agintaritza emailearekin kasuko ikerketa egiteko baldintzei buruz.

2. Artikulu honetan aurreikusitako neurrietako bat aurrera eramateko Europako ikerketa-agindu baten betearazpena erabakitzen duen agintaritzak hura betearaziko du Espainiako ordenamendu juridikoari jarraituz, eta neurriarekin lotutako eragiketen zuzendaritza eta kontrola hartuko ditu bere gain; halere, haren iraupena, baldintza zehatzak eta esku hartzen duten agenteen araubide juridikoa estatu emaileko agintaritza eskudunarekin adostuko dira.

221. artikulua. *Telekomunikazioak kontrolpean hartzeko Europako ikerketa-agindu bat betearaztea.*

1. Espainiako agintaritza judizial eskudunak Europako ikerketa-aginduen betearazpena ukatuko du 32. artikulua 1. apartatua eta 207. artikuluan aurreikusitako arrazoiengatik ez ezik, ikerketa-neurri hori bera barneko antzeko kasu batean baimentzen ez duenean ere.

2. Espainiako agintaritza judizial eskudunak telekomunikazioak kontrolpean hartzeko Europako ikerketa-agindu bat jasotzen duenean, hura honako modu hauetako batez betearazi ahalko du:

- a) Telekomunikazioak berehala helaraziko dizkio agintaritza emaileari.
- b) Telekomunikazioak kontrolpean hartuko dira, horiek erregistratu eta ondoren agintaritza emaileari helaraziko zaizkio.

Agintaritza emailearekin aukeratuko da Europako ikerketa-agindu bat betearazteko modua.

222. artikulua. *Espainiari jakinaraztea ikerturik edo auzipeturik dagoen eta Espainian dagoen pertsona baten telekomunikazioak kontrolpean hartuko direla, pertsona horren komunikazio-helbidea bidean atzemanaz, bai eta laguntza teknikoa ez dela behar ere.*

Espainiari jakinarazten zaionean ikerturik edo auzipeturik dagoen eta Espainian dagoen pertsona baten telekomunikazioak kontrolpean hartuko direla haiek bidean atzemanaz, baldin eta esku-hartze hori ez bada barneko antzeko kasu batean baimentzen, Espainiako agintaritza eskudunak telekomunikazioak kontrolpean

hartzen ari den estatuari honako hauek komunikatuko dizkio, geroratu gabe eta beranduenez jakinarazpena jaso eta laurogeita hamasei orduko epean:

a) Telekomunikazioak ezingo direla kontrolpean hartu, edo jarduera horri amaiera emango zaiola.

b) Eta, kasua bada, ezingo dela erabili kontrolpean hartzearen xede izan den pertsonari Espainian zegoen bitartean jada kontrolpean hartu zaion materiala, edo soilik erabili ahalko dela zehazten diren baldintzetan. Telekomunikazioak kontrolpean hartzen dituen estatuko agintaritzak eskudunari baldintza horien arrazoiei buruzko informazioa eman beharko zaio.

223. artikulua. *Europako ikerketa-agindu bat betearaztea froga segurtatzeko neurriak hartzeko edo frogabideekin lotutako ikerketa-diligentziak egiteko.*

Frogak segurtatzeko kautelazko neurri bat eskatzen duen Europako ikerketa-agindu baten aitortpena eta betearazpena egiteko Espainiako agintaritzak eskudunak bere erabakia komunikatuko dio agintaritzak emaileari agindua jaso eta hurrengo hogeita lau orduetan.

Europako ikerketa-agindua betearaztean, frogabideak 211. artikuluan ezarritako moduan helaraziko zaizkio estatu emaileari.

Agintaritzak emaileari kontsulta egin ondoren, Espainiako agintaritzak eskudunak, Espainiako zuzenbideari jarraituz, kasuaren inguruabarren arabera baldintzak ezarri ahalko ditu eskatutako kautelazko neurriaren aplikazio-epearen iraupena mugatzeko. Kautelazko neurria eraginik gabe uztea proposatzen bada, horri buruz informatuko zaio agintaritzak emaileari, eta alegazioak aurkezteko aukera eskainiko zaio.

Espainiako agintaritzak eskudunak Aktiboak Berreskuratu eta Kudeatzeko Bulegoaren laguntza eskatu ahalko du Europako ikerketa-agindu baten betearazpenean, agindu hori geroko konfiskazio batean eskura daitezkeen frogaelementuei buruzkoa denean.»

Hogeita hiru. Bosgarren xedapen gehigarria gehitzen da; eduki hau izango du:

«Bosgarren xedapen gehigarria. *Datu pertsonalak babestea.*

Elkarrekiko aitortza-tresna bat ematearen edo betearaztearen ondorioz lortutako datu pertsonalak babestuta egongo dira datu pertsonalen babesari buruzko Europako eta Espainiako araudian ezarritakoaren arabera.»

Hogeita lau. Seigarren xedapen gehigarria gehitzen da; eduki hau izango du:

«Seigarren xedapen gehigarria. *Lekukoek edo perituek telefono-konferentziaz deklaratzeko.*

Baldin eta lekukoaren edo perituen telefono-konferentzia bidezko deklarazioa Espainiako zigor-arloko legeria prozesalean sartzen bada, neurri hori jasotzen duen Europako ikerketa-agindu bat emateko eta betearazteko honako arau hauek egongo dira:

a) Espainian zigor-arloko prozesu batez arduratzen ari den Espainiako agintaritzak eskudunak beharrezkotzat jotzen duenean beste estatu kide bateko lurraldean dagoen pertsona bati lekuko edo peritu gisa entzutea, Europako ikerketa-agindu bat emango du lekukoaren edo perituaren deklarazioa telefono-konferentzia bidez egin dadin, non eta ez den beharrezkoago ikusten pertsona hori pertsonalki ager dadila bere lurraldean, eta modu egokiago bat erabiltzerik izan ez bada.

b) Kontrako erabakirik hartu ezean, lekukoek edo perituek telefono-konferentzia bidez deklaratzeko prozedura –deklarazio hori jasotzen duen Europako ikerketa-agindu bat emateko zein betearazteko– 216. artikulua 2., 3., 4. eta 5. apartatuetan ezarritakoaren arabera izango da.

Xedapen gehigarri honen ondoreetarako, Espainiako agintaritzak eskuduna 187. artikuluan zehaztutakoa izango da.»

Hogeita bost. Azken xedapenetako hirugarrenean k) letra gehitzen da; eduki hau izango du:

«k) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 3ko 2014/41/EB Zuzentaraua, zigor-arloko Europako ikerketa-aginduari buruzkoa.»

Hogeita sei. VIII. eranskina aldatzen da, Europako babes aginduari buruzkoa baita; frogak lortzeko Europako exhortoari buruzko XIII. eranskina kentzen da, eta Europako ikerketa-aginduari buruzko XIII., XIV. eta XV. eranskin berriak gehitzen dira, lege honen eranskinean ageri den moduan.

Hogeita zazpi. Aurkibidea aldatzen da, aurreko apartatuetatik ateratzen den moduan.

Xedapen gehigarri bakarra. *Ministerio Fiskalari baliabide gehiago ematea.*

1. Lege hau indarrean jartzen denean, Gobernuak Ministerio Fiskalari behar diren baliabideak emango dizkio bere aurreikuspenak eta Legeak esleitzen dizkion eskumen berriak bete ditzan.

2. Halaber, Gobernuak justiziaren arloko eskumenak dituzten autonomia-erkidegoekin adostuko du Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legearen erreformatik heldu diren betebeharrak berriak finantzaketa.

Xedapen iragankor bakarra. *Araubide iragankorra.*

1. Indarrean jarri ondoren Espainiako agintaritzak eskudunek helarazten dituzten edo agintaritzak horiek jasotzen dituzten ebazpenei aplikatuko zaie lege hau, horrelakoak legea egin aurretik eman diren edo horren aurretiko gertaerei buruzkoak diren kontuan hartu gabe.

2. Espainiako agintaritzak judizialek ebazpen bat aitortzeko eta betearazteko eskaera helarazi badute edota agintaritzak horiek beraiek horrelako eskaera bat jaso badute lege hau indarrean jartzen den unean, une hartan indarrean zeuden arauen arabera izapidetuko dituzte eskaera horiek, amaitu arte.

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Arauk indargabetzea.*

Indargabeturik geratzen dira lege honetan ezarritakoaren aurkakoak diren xedapenak.

Azken xedapenetako lehenengoa. *Doako Laguntza Juridikoaren urtarrilaren 10eko 1/1996 Legea aldatzea.*

Doako Laguntza Juridikoaren urtarrilaren 10eko 1/1996 Legea honela geratzen da idatzita:

Bat. 1. artikuluan azken paragrafo bat sartzen da, honako hau:

«Lege honen aplikazioan kontuan hartu beharko dira ahultasun-egoeran dauden pertsonen beharrezkoak.»

Bi. Aldatu egiten da 6. artikuluan 3. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«3. Prozedura judizialean abokatuaren eta prokuradorearen defentsa eta ordezkartza doakoak izatea, profesional horien esku-hartzea aginduzkoa denean edo, aginduzkoa izan gabe, honako inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean:

a) epaitegiak edo auzitegiak esku-hartzea berriaz eskatzea ziodun auto batez, alderdiek prozesuan berdintasuna izatea bermatze aldera.

b) delitu arinak badira, zigor-arloko prozesuaren hartzaile den pertsonak abokatu baten laguntza izateko eskubidea baliatu izana, eta epaitegiak edo auzitegiak hala erabakitzea, kasuan kasuko arau-haustearen garrantziaren eta laguntza juridikoa eskatzen duenaren inguruabar pertsonalen arabera.»

Hiru. 21. bis artikulua gehitzen da, honako idazpuru eta eduki hauekin:

«21 bis artikulua. *Izendatutako profesionala ordeztea.*

1. Doako laguntza juridikoaren onuradunak eskubidea izango du profesional berri izendatzeko behar bezala justifikatutako eskaera baten bitartez; horrek ez du etengo jada adostuta dagoen profesionalen izendapena.

2. Eskaera hori izendapena egin duen profesionalen elkargoan aurkeztu beharko du. Eskaera jasota, elkargo horrek bost eguneko epean helaraziko dio ordeztea eskatzen den profesionalari, eta ondoren, ebazpen ziodun baten bidez, erabakia hartuko du hamabost eguneko epean.

3. Kasuan kasuko profesionalen elkargoak ordeztea justifikatzeko arrazoia dagoela jasotzen duen ebazpena komunikatuko dio Doako Justiziaren Batzordeari, eskatzaileari eta, aldi berean, kasu horretan izendatzen den profesional berriari.

4. Doako Justizia Laguntzaren Batzordeak ezezkoa eman ahalko dio ordezteko eskaera izapidetzeari, eta une horretan jarduten ari diren profesionalen izendapena berretsi, baldin eta eskaera oinarritzen bada jada ezezkoaren xede izan zen arrazoi batean, gai eta profesional berari dagokionez, eta hura justifikatzen duten egitate edo inguruabar berririk ez badago.

5. Profesional berria izendatzeko eskubidea ukatzen duten ebazpenak doako laguntza juridikoaren onuradunak aurkaratu ahalko ditu 20. artikuluan ezarritako moduan.»

Azken xedapenetako bigarrena. *Prozedura Zibilaren Legea (urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea) aldatzea.*

Prozedura Zibilaren 1/2000 Legea, urtarrilaren 7koa, honela geratzen da aldatuta:

Bat. Aldatu egiten da 588 artikulua izenburua, eta 3. eta 4. apartatuak gehitzen zaizkio, eta honela geratzen dira idatzita:

«588. artikulua. *Zehaztu gabeko enbargoaren deuseztasuna. Kreditu-erakundeetan irekitako kontuak enbargatzea.*»

«3. Funtzak titular batzuen izenean dauden kontuetan gordailututa badaude, zordunari dagokion zatia enbargatuko da soilik. Ondore horietarako soilik, gordailuzainaren aurrean solidaritate aktiboa izanik titulartasun bereizgabea duten kontuen edo titulartasun bateratu mankomunatua duten kontuen kasuan, enbargoa iritsi ahal izango da zordunari dagokion saldoaren zatira; ulertuko da zati berdina dagokiela kontuaren titularrei, salbu eta jasota dagoenean funtsek beste titulartasun material bat dutela.

4. Enbargoak ukitutako kontuan gauzatu ohi bada soldataren, pentsioaren, ordainsariaren edo parekoen ordainketa, lege honetan ezarritako mugak errespetatu beharko dira, zordunaren soldatatzat, pentsiotzat edo ordainsaritzat edo horien parekotzat hartu behar denaren zenbatekoaren gainean egingo den aplikazioaren bidez. Ondore horietarako, soldatatzat, pentsiotzat, ordainsaritzat edo parekotzat hartuko da enbargoa gauzatzen den hilean edo, halakorik ezean, aurreko hilean kontzeptu hori dela-eta kontu horretan sartutako zenbatekoa.»

Bi. Egungo azken xedapenetako hogeita zazpigarrena hogeita zortzigarren bihurtzen da, eta hogeita zazpigarren azken xedapena sartzen da, honela idatzita:

«Azken xedapenetako hogeita bosgarrena. 655 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko maiatzaren 15ekoa –kontuak atxikitzeiko Europako aginduari buruzko prozedura ezartzen duena gai zibileko eta merkataritzako zorren mugaz gaindiko kobrantzak sinplifikatzeko helburuarekin–, Espainian aplikatzea bideratzeko neurriak.

1. Lege honen 545. artikulua 3. apartatuarekin bat etorritik zehaztuko da betearazte-indarra duen dokumentu publiko batean zehaztutako kredituari buruzko agindua emateko eskumena. Era berean, eskudun izango da, eskatzailearen aukeran, eskaera oinarritzen duen dokumentua formalizatu den tokiko lehen auzialdiko epaitegia.

2. Beste estatu kide batean emandako atxikitze-agindua betearazteko eskudun izango da banku-kontua mantentzen den tokiko lehen auzialdiko epaitegia eta, toki desberdinetan badaude kontuak, haietako edozeini dagokion lehen auzialdiko epaitegia.

3. Espainian egoitza duen zordunari 655/2014 (EB) Erregelamenduaren 28. artikulua 3. apartatua aurreikusitako jakinarazpena egiteko eskudun izango da zordunaren egoitzako lehen auzialdiko epaitegia.

4. 655/2014 (EB) Erregelamenduaren 34. artikulua 3. apartatua eta 35. artikulua beste estatu kide batean emandako agindua betearazi duen epaitegiak edo auzitegiak ebartzeko du betearazpen horren aurka zordunak egindako aurkaratzea.

5. 655/2014 (EB) Erregelamenduaren 14. artikuluan aipatzen den kontuen informazioa lortzearen ondoretarako, Espainiako informazio-agintaritzak elkarlana eskatu ahal izango dio zordunaren kreditu-erakundeak eta kontuak identifikatzea ahalbidetzen duen informazioa duen edozein erakunde publiko eta pribaturi, baldin eta hala eskatzen badu atxikitze-agindua zein jurisdikzio-organoren aurrean aurkeztu eta hark. Ondore horietarako, erakunde horiek behartuta egongo dira informazio hori ematera.»

Azken xedapenetako hirugarrena. *Estatuaren Kanpo Ekintzari eta Zerbitzuari buruzko Legea (martxoaren 25eko 2/2014 Legea) aldatzea.*

Estatuaren Kanpo Ekintzari eta Zerbitzuari buruzko martxoaren 25eko 2/2014 Legeari hamazazpigarren, hemezortzigarren eta hemeretzigarren xedapen gehigarriak gehitzen zaizkio; hona hemen haien edukia:

«Hamazazpigarren xedapen gehigarria. *Kontsulatuaren babesa.*

1. Europar Batasuneko kidea den estatu bateko herritarrak hirugarren herrialdeetan daudenean, zeinetan beren nazionalitateko estatuak ez duen misio diplomatikorik edo kontsul-bulegorik, eskubidea izango dute bertan dagoen Espainiako kontsul-bulegoari edo misio diplomatikoari babesa eskatzeko Espainiako herritarren baldintza berdinetan.

Hirugarren herrialde batean ordezkaturik ez dauden herritarrei laguntzen dieten senideak, zeinak aldi berean ez diren Europar Batasuneko herritarrak, Batasuneko herritarrak ez diren espainiarren senideen baldintza berdinetan izango dute babesa.

2. Espainia kontsul-bulego edo misio diplomatiko batez ordezkaturik ez dagoen herrialdeetan dauden Espainiako herritarrek eskubidea izango dute kontsulatuaren babesa eskatzeko hirugarren herrialde horretan ordezkaturik ez diren Europar Batasuneko kide den edozein estaturen kontsul-bulegoan edo misio diplomatikoan, herrialde horrek bere herritarrak babesten dituen baldintza berdinetan.

Hirugarren herrialde batean Espainiako herritarrei laguntzen dieten senideak, zeinak ez diren Europar Batasuneko herritarrak, babesa ematen duen estatu kideko herritarren senideek, zeinak Batasuneko kideak ez diren, babesa duten baldintza berdinetan tratatuko dira.

3. Aurreko bi apartatuetan aitortutako eskubideak baliatuko dira ezertan eragotzi gabe Europar Batasuneko kide diren estatuak ordezkartzari edo zamen toki-banaketari buruz egiten dituzten akordioak.

4. 1. eta 2. apartatuetan aitortutako eskubideen ondoreetarako, ulertzen da Europar Batasuneko kidea den estatu bat ez dagoela hirugarren herrialde batean ordezkatzuta ez badu herrialde horretan modu iraunkorrean ezarriko misio diplomatikorik edo kontsul-bulegorik, edo herrialde horretan ez badu kasu jakin batean kontsulatuaren babes eraginkorra emateko prest dagoen misio diplomatikorik edo kontsul-bulegorik edo ohorezko kontsuletzerik.

Hemezortzigarren xedapen gehigarria. *Misio diplomatikorik edo kontsul-bulegorik ez dagoen estatueta kontsulatuaren babesa baliatzea.*

Espainiak eskatu ahalko du ordezkartzarik ez dagoen edo misio diplomatikorik edo kontsul-bulegorik ez dagoen herrialde batean babesa eskatu duten Espainiako herritarrentzat kontsulatuaren babesa zuzenean balia dadila. Eskaera jaso duen estatu kideari edo Espainiako herritarren kontsulatuaren babesaz arduratzen ari den estatu kideari helaraziko zaio eskaera hori.

Halaber, ordezkatzuta ez dagoen Europar Batasuneko herritarren nazionalitateko estatu kidearen batek babesa zuzenean baliatzeko eskaera jasotzekotan, Espainiak uko egingo dio kontsulatuaren babesa baliatzeari.

Hemeretzigarren xedapen gehigarria. *Kontsulatuaren babesa baliatzeak eragindako gastuen itzulketa.*

1. Espainiak kontsul-laguntza ematen dionean ordezkartzarik ez duen Batasuneko herritar bati eta, kasua bada, harekin dauden eta Batasuneko herritarrek ez diren senideei, Kanpo Arazoetako eta Lankidetzarako Ministerioak, Atzerriari dauden Espainiarren eta Kontsul eta Migrazio Gaietako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, laguntza horren gastuen itzulketa eskatu ahalko du, Espainiako herritar baten kasuko baldintza berdinetan.

Ordezkaritzarik ez duen Batasuneko herritar bati emandako kontsulatuaren babesak, atxilotze edo esperatze kasuetan, ohi baino handiagoak diren ezinbesteko gastu justifikatuak dakartzanean, agintaritzak diplomatikoen edo kontsuletzeko agintaritzen bidaiekin, ostatu-hartzearekin eta itzulpenarekin zerikusia dutenak, Espainiak horiek itzultzeko eskatu ahalko du.

2. Beren buruarentzat edo, kasua bada, haiekin batera dauden eta Batasuneko kideak ez diren beren senideentzat beste estatu kide baten kontsulatuaren babesa jasotzen duten Espainiako herritarrek, Espainiak hirugarren herrialde batean ordezkartzarik ez duelako, konpromisoa hartuko dute Espainiako Altxor Publikoari itzultzeko kontsulatuaren babes horrek dakartzan gastuak, babesa eman duen estatu kideko herritarrek dauzkaten baldintza berdinetan.

Era berean, agintaritzak diplomatikoen edo kontsuletzeko agintaritzen bidaiekin, ostatu-hartzearekin eta itzulpenarekin zerikusia duten eta ohi baino handiagoak diren ezinbesteko gastu justifikatuak itzultzeko eskaerak onartuko dira, ordezkartzarik ez duten eta atxilotuta edo espetxeratuta dauden Espainiako herritarren kontsulatuaren babeserako direnak.

3. Krisi-egoeretan, ordezkartzarik ez duen Batasuneko herritar bati eta, kasua bada, Batasuneko herritarrek ez diren eta berarekin dauden senideei, emandako laguntza osoak eragindako gastuak itzultzeko eskatu ahalko da. Era berean, onartuko dira Espainiako herritarrei eta, kasua bada, Batasuneko herritarrek ez diren eta berarekin dauden senideei, emandako laguntza osoak eragindako gastuak itzultzeko eskaerak. Gastuen itzulketa modu proportzionalen eskatu ahalko da, honako eragiketa eginez: gastuen zenbateko osoa zati laguntza hartu duten herritarren kopurua.»

Azken xedapenetako laugarrena. *Europar Batasunaren Zuzenbidea txertatzea.*

1. Lege honen bitartez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 3ko 2014/41/EB Zuzentaraua Espainiako Zuzenbidean txertatzen da eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko urriaren 22ko 2013/48/EB Zuzentarauaren transposizioa osatzen da; 2014/41/EB Zuzentaraua zigor-arloko Europako ikerketa aginduari buruzkoa da, eta 2013/48/EB Zuzentaraua zigor-arloko prozesuetan eta Europako atxilotzeko aginduari dagozkion prozeduretan letraduaren laguntza izateko eskubideari, askatasunaz gabetzeko unean hirugarren bati horren berri emateko eskubideari eta askatasunaz gabetuta dagoen bitartean hirugarrenekin eta kontsulatuaren agintaritzarekin komunikatzeko eskubideari buruzkoa.

2. Halaber, osatu egiten da honako hauen Espainiako zuzenbiderako transposizioa: Kontseiluaren 2006ko urriaren 6ko 2006/783/JAI Esparru Zuzentaraua eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko urriaren 26ko 2016/1919/EB Zuzentaraua. 2006/783/JAI Esparru Zuzentaraua konfiskatzeko ebazpenak elkarri aitortzeko printzipioa aplikatzekoa da, eta 2016/1919/EB Zuzentaraua zigor-prozesuetako susmagarrientzako eta auzipetuentzako eta Europako atxilotzeko aginduaren prozedura baten indarrez bilatzen diren pertsonentzako doako laguntza juridikoari buruzkoa.

3. Azken xedapenetako hirugarrenaren bidez, Kontseiluaren 2015eko apirilaren 20ko 2015/637/EB Zuzentaraua zati batean txertatzen da, eta 95/553/EE Erabakia indarrrik gabe uzten da; zuzentarau hori hirugarren herrialdeetan ordezkariarik ez duten Batasuneko herritarren kontsulatuaren babesa errazteko koordinazio- eta lankidetzaneurriei buruzkoa da.

Azken xedapenetako bosgarrena. *Araugintza garapena eta betearaztea.*

Gobernuari gaikuntza ematen zaio lege hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapenak emateko.

Ahalmena ematen zaie Gobernuari eta Kanpo Arazoetako eta Lankidetzako ministroari, bere eskumenen eremuan, azken xedapenetako hirugarrena garatzeko beharrezko diren erregelamenduzko xedapen guztiak eman ditzaten, eta orobat xedapen horren bitartez sartutako aldaketak egiazki betearazteko eta ezartzeko behar diren neurriak erabaki ditzaten.

Ministerio Fiskalari dagokionez, eta legeak esleitzen dizkion aurreikuspen eta eskumen berriak betetzeko, Gobernuak behar diren bitarteko eta aurrekontu-baliabideak segurtatuko ditu, Europako ikerketa-agindutik datozen nazioarteko lankidetzaren juridikoko mekanismoen eraginkortasuna segurtatzeko.

Azken xedapenetako seigarrena. *Indarrean jartzea.*

Lege hau indarrean jarriko da *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hogeiei egun igarota.

Salbuespen gisa, azken xedapenetako lehenengoak 2018ko urriaren 1ean jarriko da indarrean.

Horrenbestez,

Lege hau bete eta betearaz dezatela agintzen diet espainiar guztiei, partikular zein agintariei.

Madriren, 2018ko ekainaren 11n.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN

ERANSKINA

VIII. ERANSKINA

Babesteko Europako agindua

Ondoko zuzentarau honen 7. artikuluan jasota dago:

EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2011KO ABENDUAREN
13KO 2011/99/EB ZUZENTARUA, BABESTEKO EUROPAKO AGINDUARI BURUZKOA

Formulario honetako informazioak isilpeko tratamendua izan behar du.

Estatu emailea: Estatu betearazlea:
a) Babestutako pertsonari buruzko informazioa: Abizenak: Izena: Ezkondu aurreko abizena edo aurreko abizena (hala badagokio): Sexua: Nazionalitatea: Identifikazio-zenbakia edo gizarte-segurantzako zenbakia (halakorik badu): Jaiotza-data: Jaiotza-lekua: Helbideak/bizilekuak: – estatu emailean: – estatu betearazlean: – beste leku batean: Ulertzen dituen hizkuntzak (jakinez gero):
Eman al zaio babestutako pertsonari doako laguntza juridikorik estatu emailean? (informazio hori momentu honetan eskuragarri egonez gero): <input type="checkbox"/> Bai. <input type="checkbox"/> Ez. <input type="checkbox"/> Ez dakigu. Babestutako pertsona adingabea edo legez ezgai bada, pertsonaren tutoreari edo ordezkariari buruzko informazioa: Abizenak: Izena: Ezkondu aurreko abizena, edo aurreko abizena (hala badagokio): Sexua: Nazionalitatea: Helbide profesionala:
b) Babestutako pertsonak estatu betearazlean bizitzea erabaki badu edo jada bertan bizi bada, edo estatu horretan egotea erabaki badu edo jada bertan badago: Noiztik biziko edo egongo den babestutako pertsona estatu betearazlean (jakinez gero): Han egongo den aldia edo aldiak (jakinez gero):

c) Babestutako pertsonari edo arriskua eragin duen pertsonari gailu teknikoren bat eman al zaio babes-neurria betearazteko?:

- Bai. Azaldu labur-labur erabilitako gailu elektronikoa:
 Ez.

d) Babesteko Europako agindua eman zuen agintaritza eskuduna:

Izen ofiziala:

Helbide osoa:

Telefonoa (herrialdearen aurrezenbakia) (eskualdearen edo hiriaren aurrezenbakia) (zenbakia):

Faxa (herrialdearen aurrezenbakia) (eskualdearen edo hiriaren aurrezenbakia) (zenbakia):

Harremanetarako pertsonaren datuak:

Abizenak:

Izena:

Eginkizuna (titulua edo maila):

Telefonoa (herrialdearen aurrezenbakia) (eskualdearen edo hiriaren aurrezenbakia) (zenbakia):

Faxa (herrialdearen aurrezenbakia) (eskualdearen edo hiriaren aurrezenbakia) (zenbakia):

Posta elektronikoa (halakorik badu):

Komunikatzeko erabil ditzakeen hizkuntzak:

e) Babesteko Europako agindua emateko oinarritzat hartutako babes-neurriaren identifikazioa:

Babes-neurria egun honetan hartu zen (eguna: UUUU-HH-EE):

Babes-neurria egun honetatik betearaztekoa da (eguna: UUUU-HH-EE):

Babes-neurriaren espedientearen erreferentzia (jakinez gero):

Babes-neurria hartu zuen agintaritza:

f) Gertaeren laburpena eta e) letran aipatutako babes-neurria ezartzea eragin zuten zirkunstantzien azalpena, baita, hala badagokio, arau-haustearen tipifikazioarena ere:

g) Babes-neurriak arriskua eragin duen pertsonari ezarritako debekuari (edo debekuei) edo murrizketari (edo murrizketei) buruzko oharrak:

– Debeku(ar)en edo murrizket(ar)en izaera (lauki bat baino gehiago marka daiteke):

babestutako pertsona bizi den edo maiz egoten den udalerrri, toki edo eremu jakin batzuetan sartzeko debekua:

– lauki hau markatuz gero, adierazi zehatz-mehatz arriskua eragin duen pertsonak sartzea galarazita dituen udalerrri, toki edo eskualdeak:

babestutako pertsonarekin harremanik izateko debekua edo harekiko harremana arautzea, horien barne direla telefonoz, posta elektronikoz edo posta arruntez, faxez edo beste edozein bidez izandako harremanak:

– lauki hau markatuz gero, adierazi egokia den edozein xehetasun:

babestutako pertsonarengana neurrian adierazitakoa baino tarte txikiagora hurbiltzeko debekua edo harenganako hurbiltzea arautzea:

– lauki hau markatuz gero, adierazi zehatz-mehatz arriskua eragin duen pertsonak babestutako pertsonarekiko gutxienez gorde behar duen distantzia:

– Adierazi aurretik aipatutako debekua(k) edo murrizketa(k) arriskua eragin duen pertsonari zer epetan ezartzen zai(zki)on:

– Adierazi debekua edo murrizketa bete ezean ezar daitezkeen zigorra edo zehapena:

h) Arriskua eragin duen eta e) letran aipatutako debekua(k) edo murrizketa(k) ezarri zaizkion pertsonari buruzko informazioa:

Abezinak:

Izena:

Ezkondu aurreko abizena edo aurreko abizena (hala badagokio):

Ezizena (hala badagokio):

Sexua:

Nazionalitatea:

Identifikazio-zenbakia edo gizarte-segurantzako zenbakia (halakorik badu):

Jaiotza-data:

Jaiotza-lekua:

Helbideak/bizilekuak:

– estatu emailan:

– estatu betearazlean:

– beste leku batean:

Ulertzen dituen hizkuntzak (jakinez gero):

Jakinez gero, jakinarazi informazio hau:

– Pertsonak zer nortasun-agiri mota duen edo dituen(nortasun-agiria, pasaporte):

Eman al zaio arriskua eragin duen pertsonari doako laguntza juridikorik estatu emailan? (informazio hori momentu honetan eskuragarri egonez gero):

Bai.

Ez.

Ez dakigu.

i) Babestutako pertsonak pairatzen duen arriskuaren ebaluazioan eragin dezaketen bestelako inguruabarrak (aukerako informazioa):

j) Beste datu erabilgarri batzuk (esate baterako, jakiten bada eta beharrezkoa bada, pertsona bera babesteko aurrez babes-neurriak hartu diren beste estatu batzuei buruzko informazioa):

k) Honako hau betetzea eskatzen da:

beste estatu kide bati jada epai bat helarazi zaio, 2008/947/JAI Esparru Zuzentarauaren 2. artikuluaaren definizioaren arabera.

– Laukitxo hau markatuz gero, adieraz itzazu epaia igorri zitzaion agintaritzaren eskudunaren harremanetarako datuak:

beste estatu kide bati jada zaintza-neurriei buruzko ebazpen bat helarazi zaio, 2009/829/JAI Esparru Zuzentarauaren 4. artikuluaaren definizioaren arabera.

– Laukitxo hau markatuz gero, adieraz itzazu zaintza-neurriei buruzko ebazpena igorri zitzaion agintaritzaren eskudunaren harremanetarako datuak:

Babesteko Europako agindua ematen duen agintaritzaren edo haren ordezkariaren sinadura; horren bidez aginduaren edukia zehatza dela berresten du:

Izena:

Eginkizuna (titulua edo maila):

Data:

Espedientearen erreferentzia (halakorik badago):

Zigilu ofiziala (beharrezko bada):

XIII. ERANSKINA

Europako Ikerketa Agindua (EIA)

EIA hau agintaritza eskudun batek eman du. Agintaritza emaileak ziurtatzen du EIA hau beharrezkoa eta proportzionatua dela hartan zehazten diren prozeduren ondoreetarako, kontuan hartu direla ikertuaren edo auzipetuaren eskubideak eta eskatutako ikerketa-neurriak agindu ahal direla, baldintza berdinetan, barruko antzeko kasuan. Eskatzen dut ondoren zehaztutako ikerketa-neurriak egin daitezela, horretarako behar bezala kontuan hartuz ikerketaren konfidentzialtasuna eta EIAREN betetzearen emaitza gisa lortutako frogak helaraziko direla.

A ATALA

Estatu emailea:
Estatu betearazlea:

B ATALA: Premia

Adieraz ezazu honako hauekin lotuta larrialdirik badagoen:

- Frogak ezkutatu edo suntsitzea
- Epaia berehala hasiko da
- Beste arrazoirik

Zehaztu:

EIA betearazteko denbora-mugak 2014/41/EB Zuzentarauan ezartzen dira. Nolanahi ere, epe laburrago edo zehatzago bat behar izanez gero, adieraz ezazu data zein den eta horretarako zein arrazoi dauden:

.....
.....
.....
.....
.....

C ATALA: Bete beharreko ikerketa-neurriak

1. Deskriba itzazu eskatutako laguntza- edo ikerketa-neurriak, eta adieraz ezazu, kasua bada, honako ikerketa-neurri hauetakoren bat baden:

.....
.....
.....
.....

- Jada agintaritza betearazlearen esku dauden informazioa edo frogak lortzea
- Agintaritza polizial edo judizialen datu-baseetan dagoen informazioa lortzea
- Honako hauen adierazpena:
 - lekukoak
 - perituak
 - ikertua edo auzipetua
 - biktima
 - hirugarrenak
- Telefono-zenbaki edo IP helbide jakin batzuen titularrak diren pertsonak identifikatzea
- Atxilotua estatu emailera behin-behinekoz eramatea
- Atxilotua estatu betearazlera behin-behinekoz eramatea

- Bideokonferentzia bidezko edo ikus-entzunezko beste transmisio modu batzuen bidezko deklarazioa
 - lekukoak
 - perituak
 - ikertua edo auzipetua
- Telefono-konferentzia bidezko agerraldia
 - lekukoak
 - perituak
- Banku-kontuei edo bestelako finantza-kontuei buruzko informazioa
- Banku-eragiketei edo bestelako finantza-eragiketei buruzko informazioa
- Frogak denbora errealean, modu jarraituan eta epe jakin batez, lortzea dakarten ikerketa-neurriak
 - banku-eragiketak edo bestelako finantza-eragiketak gainbegiratzea
 - zaintzapeko entregak
 - bestelakoak
- Ezkutuko ikerketak
- Telekomunikazioak kontrolpean hartzea
- Froga gisa erabil daitezkeen objektuak suntsitzea, eraldatzea, eramatea, eskualdatzea edo deuseztatzea prebenitzeko behin-behineko neurria(k).

D ATALA: Aurreko EIA batekin dagoen lotura

Adieraz ezazu ea EIA honek aurreko beste EIA bat osatzen duen. Kasua bada, informazio egokia eman ezazu aurreko EIA identifikatzeko (noiz eman zen, zein agintaritzari helarazi zizaion eta, ahal izanez gero, EIA helarazteko data, bai eta agintaritza emaileak eta betearazleak erabilitako erreferentzia-zenbakiak ere):

.....
.....

Halakorik badago, adieraz ezazu EIA jada beste estatu kideren bati igorri zaion kasu berarako:

.....
.....

E ATALA: Ukitutako pertsonen identitatea

1. Adieraz ezazu, ezagutzen duzun neurrian, ikerketa-neurriak ukitutako pertsona a) fisikoaren edo b) juridikoaren identitateari buruzko informazio guztia (pertsona bat baino gehiago ukituta daudenean, adieraz ezazu horietako bakoitzari buruzko informazioa):

a) Pertsona fisikoentzat

Abizenak:

Izena(k):

Beste izen bat(batzuk), halakorik badago:

.....

Ezizena, halakorik badago:

.....

Sexua:

Nazionalitatea:

Nortasun agiriaren edo gizarte-segurantzako agiriaren zenbakia:

Pertsonaren nortasun-agiriaren edo -agiriaren mota eta zenbakia (nortasun-agiria, pasaporte), egokia bada:

.....

Jaiotza-data:

Jaiotza-lekua:

Bizileku eta helbide ezaguna; jakin ezean, ezagutzen den azken helbidea:

.....

Pertsonak ulertzen duen(dituen) hizkuntza(k):

b) Pertsona juridikoentzat

Izena:

Pertsona juridikoaren forma:

Izen laburtua, oro har erabiltzen den izena edo merkataritza-izena, halakorik badago:

Egoitza soziala:

Matrikula-zenbakia:

Pertsona juridikoaren helbidea:

Pertsona juridikoaren ordezkariaren izena:

Adieraz ezazu prozeduraren barruan pertsona hori zer den:

ikertua edo auzipetua

biktima

lekukoa

peritua

hirugarrenak

beste bat (zehaztu):

2. Gorago aipatutako helbideaz beste bat bada, adieraz ezazu ikerketa-neurria non egin behar den:

.....

3. Kasua bada, eman ezazu EIA betearazten lagun dezakeen bestelako informazioa:

.....

.....

F ATALA: EIA zein prozedura-motatan eman daitekeen

a) agintaritza judizial batek hasitako zigor-arloko prozeduretan edo estatu emailearen barneko zuzenbidearen arabera delitua izan daitezkeen egitateengatik agintaritza judizial baten aurrean ezar daitezkeen zigor-prozeduretan, edo

b) administrazio-agintaritzek estatu kide emailearen barneko zuzenbidean tipifikatutako egitateengatik hasitako prozeduretan, egitate horiek legeriaren arau-hausteak direlako, eta erabakiak organo jurisdikzional eskudun baten aurrean prozedura bat eragin dezakeenean, bereziki zigor-arloan, edo

c) estatu emaileko zuzenbidearen arabera delitu diren (haren legeetan delitu gisa tipifikatuta daude) egintza edo egitateengatik agintaritza judizial batek hasitako prozeduretan, eta erabakiak organo jurisdikzional eskudun baten aurrean prozedura bat eragin dezakeenean, bereziki zigor-arloa;

d) pertsona juridiko bat estatu emailean erantzulezat jo ahal izatea edo zigor bat jasan ahal izatea eragin dezaketan delitu edo arau-hausteei buruz a), b) eta c) letretan aipatutako prozeduretan.

G ATALA: EIA emateko arrazoiak

1. Egitateen laburpena

Adieraz itzazu EIA emateko arrazoiak, horren barne direla azpian dauden egitateen laburpena, egotzitako edo ikertutako delituen deskribapena, ikerketa zein fasetara iritsi den, arrisku-faktore orenen arrazoiak eta egokia den gainerako informazioa.

.....

.....

.....

2. EIA emateko arrazoia izan diren delituen izaera eta kalifikazio juridikoa eta aplikatu beharreko legezko araua edo kodea:

.....

.....

.....

3. EIA emateko arrazoia izan den delitua, zeina ondoren jasotzen den delituen zerrendan baitago, zigor daiteke estatu emailean askatasunaz gabetzeko zigor batez edo gehienez ere atxilotze-agindu batez, zeina gehienez hiru urtekoa izango baita, estatu emailearen Zuzenbidean definitu bezala? Dagokion laukitxoa marka ezazu, mesedez:

- Delitu-antolakundeko kidea izatea.
- Terrorismoa.
- Gizakien salerosketa.
- Umeen sexu-esplotazioa eta haur-pornografia.
- Estupefazianteen eta substantzia psikotropikoen legez kontrako trafikoa.
- Armen, munizioen eta lehegailuen legez kontrako trafikoa.
- Ustelkeria.
- Iruzurra, Europar Batasuneko interes finantzarioei eragiten diena barne hartuta, Europako Erkidegoetako interes finantzarioak babesteari buruzko 1995eko uztailaren 26ko Hitzarmenarekin bat etorritz.
- Delituaren emaitzaren zuriketa.
- Moneta faltsifikatzea, euroa faltsifikatzea barne.
- Informatika-delituak.
- Ingurumenaren aurkako delituak, babestutako animalia-espezieen eta landare-espezie eta -barietateen legez kontrako trafikoa barne.
- Legez kanpoko sarrera eta egonaldia laguntzea.
- Borondatezko giza hilketa eta lesio larriak eragiten dituen erasoak.
- Giza organoen eta ehunen legez kontrako trafikoa.
- Bahiketa, legez kontrako atxilotzea eta bahituak hartzea.
- Arrazakeria eta xenofobia.
- Antolatutako lapurreta edo armak erabiliz egindakoa.
- Kultur ondasunen legez kontrako trafikoa, antzinako gauzen eta artelanena barne.
- Iruzurra.
- Xantaia eta estortsioa.
- Jabetza industrialeko eskubideak urratzea eta salgaiak faltsutzea.
- Administrazio-dokumentuak faltsutzea eta administrazio-dokumentu faltsuen trafikoa.
- Ordainbideak faltsutzea.
- Substantzia hormonalen eta bestelako hazkuntza-faktoreen legez kontrako trafikoa.
- Gai erradiaktiboen edo substantzia nuklearren legez kontrako trafikoa.
- Lapurtutako ibilgailuen trafikoa.
- Bortxaketa.
- Eragindako sutea.
- Nazioarteko Zigor Auzitegiaren jurisdikzioan jasotako delituak.
- Aireontziak eta ontziak bahitzea.
- Sabotajea.

H ATALA: Neurri jakin batzuetarako baldintza gehigarriak
Bete itzazu eskatutako ikerketa-neurrien/-neurriaren dago(z)kion atalak:

H1 ATALA: Atxilotuen lekualdatzea

1) Atxilotutakoa estatu emailera aldi baterako eramatea eskatu bada ikerketaren ondoretarako, adierazi ea pertsona horrek neurrirako baimena eman ote zuen:

Bai Ez Eskatzen dut dagokion pertsonaren adostasuna eska dadila

2) Atxilotutakoa estatu betearazlerra aldi baterako eramatea eskatu bada ikerketaren ondoretarako, adierazi ea pertsona horrek neurrirako baimena eman ote zuen:

Bai Ez

H2 ATALA: Bideokonferentzia, edo telefono-konferentzia edo ikus-entzunezko beste transmisio modu batzuk Agerraldia bideokonferentzia bidez, telefono bidez edo ikus-entzunezko beste transmisio modu batzuen bidez egiten denean

Adierazi deklarazioa hartuko duen agintaritzaren izena (harremanetarako xehetasunak edo hizkuntza)

.....

Adieraz itzazu neurri hau eskatzeko arrazoiak:

.....

a) bideokonferentzia bidezko edo ikus-entzunezko beste transmisio modu batzuen bidezko agerraldia

ikertuak edo auzipetuak adostasuna adierazi du

b) Telefono-konferentzia bidezko agerraldia

H3 ATALA: Kautelazko neurriak

Froga moduan erabil daitekeen objektu baten suntsitzea, eraldatzea, lekualdatzea edo deuseztatzea saiheste aldera kautelazko neurri bat eskatu denean, honako hauek adierazi:

objektua estatu emailera helaraziko da;

objektuak estatu betearazlean geratuko da; adierazi zein data aurreikusten den:

kautelazko neurria altxatzeko:

objektuarekin loturik gerora eskaera bat aurkezteko.....

H4 ATALA: Banku-informazioa eta beste finantza-kontu batzuei buruzkoa

1) Pertsona titularra den edo kontrolatzen dituen banku-kontuei edo beste finantza-kontu batzuei buruzko informazioa eskatzen denean, adierazi, haietako bakoitzerako, zergatik jotzen den neurri hori komenigarria dela zigor-arloko prozeduraren ondoretarako, eta zergatik suposatzen den kontua estatu betearazleko bankuren batean dagoela:

Dena delako pertsona titularra edo ahalduna den banku-kontuei buruzko informazioa

Dena delako pertsona titularra edo ahalduna den bestelako finantza-kontuei buruzko informazioa

.....

.....

.....

.....

2) Banku-eragiketei edo bestelako finantza-eragiketei buruzko informazioa eskatzen denean, adierazi, haietako bakoitzerako, zergatik jotzen den neurri hori komenigarria dela zigor-arloko prozeduraren ondoretarako.

banku-eragiketei buruzko informazioa

beste finantza-eragiketa batzuei buruzko informazioa

Adieraz itzazu dena delako epea eta dagozkion kontuak

H5 ATALA: Frogak denbora errealean, modu jarraituan eta epe jakin batez, lortzea dakarten ikerketa-neurriak Mota horretako ikerketa-neurri bat eskatzen denean, adierazi zergatik jotzen den eskatutako informazioa egokia dela zigor-arloko prozeduraren ondoretarako

H6 ATALA: Ezkutuko ikerketak

Ezkutuko ikerketa bat eskatzen denean, adierazi zergatik uste den ikerketa-neurria egokia dela zigor-arloko prozeduraren ondoretarako

H7. ATALA: Telekomunikazioak kontrolpean hartzea

1) Telekomunikazioak kontrolpean hartzeko eskatzen denean, adierazi zergatik uste den ikerketa-neurria komenigarria dela zigor-arloko prozeduraren ondoretarako

2) Eman ezazu honako informazio hau:

a) esku-hartzearen xede den pertsona identifikatzeko informazioa

b) esku-hartzeak zenbat irautea nahi den

c) datu teknikoak (bereziki, kontrolpean hartuko direnak identifikatzekoak; esate baterako, telefono mugikorra, telefono finkoa, posta elektronikoko helbidea, interneteko konexioa), EIA betearaz dadin bermatze aldera:

3) Adierazi lehentasunik ote duzun betearazteko metodoarekin loturik

berehalako helaraztea

grabaketa egin eta gero helaraztea

Adierazi ea kontrolpean hartutako materialaren transkripzioa, deskodetzea edo desenkriptatzea ere behar den (*):

.....
.....
.....

(*) Ohartarazi transkripzioen, deskodetzeen edo desenkriptatzeen kostuak estatu emailearen kontura izango direla.

I. ATALA: Betearazteko eskatzen diren izapideak eta prozedurak

1. Markatu eta bete, hala dagokionean:

Agintaritzaren betearazleari honako izapide eta prozedura hauek betetzeko eskatzen zaio (...):

.....
.....
.....

2. Markatu eta bete, hala dagokionean:

EIA betearazteko, estatu emaileko funtzionario baten edo batzuen laguntza eskatzen da estatu betearazleko agintaritzaren eskudunei laguntza emateko.

Funtzionario horiekin harremanetan jartzeko datuak:

.....
.....
.....

Erabil daitezkeen hizkuntzak:

.....
.....

J ATALA: Errekurtsoak

1. Adieraz ezazu ea errekurtsoren bat aurkeztu den EIA ematearen aurka, eta hala bada, eman datu gehigarriak (errekurtsoren deskribapena, eman beharreko urratsak barne, bai eta epeak ere):

.....
.....
.....

2. Estatu horretan errekurtsoa jartzeko prozedurei buruzko eta abokatuen laguntza zein itzulpena eta interpretazioa lortzeko aukerari buruzko informazio gehiago eman dezakeen estatu emaileko agintaritzaren izena:

Izena:

Harremanetarako pertsona (halakorik badago):

Helbidea:

Telefono zenbakia: (herrialdeko aurrezenbakia) (tokiko aurrezenbakia):

Fax-zenbakia: (herrialdeko aurrezenbakia) (tokiko aurrezenbakia):

Posta elektronikoa:

K ATALA: EIA ematen duen agintaritzaren datuak.

Adierazi zein motatako organo jurisdikzionalak eman zuten exhortoa:

agintaritza judiziala

(*) beste edozein agintaritza eskudun, estatu emaileko zuzenbidean definitzen den bezala

(*) Bete ezazu, halaber, dagokion atala (L)

Izena:

Ordez kariaren izena edo harremanetarako gunea:

Espediente-zenbakia:

Helbidea:

Telefono zenbakia: (herrialdeko aurrezenbakia) (tokiko aurrezenbakia)

Fax-zenbakia: (herrialdeko aurrezenbakia) (tokiko aurrezenbakia):

Posta elektronikoa:

Agintaritza emailearekin komunikatzeko hizkuntzak:

Aurreko ez beste batzuk badira, informazio gehigarria lortzeko edo frogak helarazteko modalitate praktikoak adosteko norekin jarri behar den harremanetan, pertsona horren/horien datuak:

Izena/Eginkizuna/Organismoa:

Helbidea:

Posta elektronikoa/Harremanetarako telefonoa:

Agintaritza emailearen edo haren ordezkariaren sinadura, EIAren edukia zehatza eta zuzena dela ziurtatzen duena:

Izena:

Eginkizuna (titulua/maila):

Data:

Zigilu ofiziala (horrelakorik badago):

L ATALA: EIA baliozkotu duen agintaritza judizialaren datuak. Adieraz ezazu zein motatako agintaritza judizialak baliozkotu duen EIA hau:

a) epailea edo auzitegia

b) instrukzioko epailea.

c) fiskaltza

EIA baliozkotu duen agintaritzaren izen ofiziala:

Ordez kariaren izena:

Eginkizuna (titulua/maila):

Espediente-zenbakia:

Helbidea:

Telefono zenbakia: (herrialdeko aurrezenbakia) (tokiko aurrezenbakia)

Fax-zenbakia: (herrialdeko aurrezenbakia) (tokiko aurrezenbakia)

Posta elektronikoa:

EIA baliozkotu duen agintaritzarekin komunikatzeko hizkuntzak:

Adieraz ezazu agintaritza betearazleak harremanak zein agintaritzarekin izango dituen nagusiki:

agintaritza emailea

EIA baliozkotu duen agintaritza

EIA baliozkotu duen agintaritzaren sinadura eta datuak

Izena:

Eginkizuna (titulua/maila):

Data:

Zigilu ofiziala (horrelakorik badago):

XIV. ERANSKINA

EIA bat jaso izana berrestea

Formulario hau estatu betearazleko agintaritzak bete beharko du, ondoren deskribatutako EIA jaso ondoren.

<p>A) EIA eman duen agintaritza:</p> <p>.....</p> <p>Espedientearen erreferentzia:</p> <p>Jaulkitze-data:</p> <p>Noiz jaso:</p>
<p>B) EIA JASO DUEN AGINTARITZA ¹</p> <p>Agintaritza eskudunaren izen ofiziala:</p> <p>.....</p> <p>Ordez kariaren izena:</p> <p>.....</p> <p>Eginkizuna (titulua/maila):</p> <p>.....</p> <p>Helbidea:</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>Telefono zenbakia: (herrialdeko aurrezenbakia) (tokiko aurrezenbakia)</p> <p>Fax-zenbakia: (herrialdeko aurrezenbakia) (tokiko aurrezenbakia)</p> <p>Posta elektronikoa:</p> <p>Espedientearen erreferentzia:</p> <p>Agintaritzarekin komunikatzeko hizkuntzak:</p> <p>.....</p>
<p>C) (EGOKIA DENEAN) B) ATALAK AIPATZEN DUEN AGINTARITZAK ZEIN AGINTARITZA ESKUDUNI HELARAZI ZION EIA</p> <p>Agintaritzaren izen ofiziala:</p> <p>.....</p> <p>Ordez kariaren izena:</p> <p>.....</p> <p>Eginkizuna (titulua/maila):</p> <p>.....</p> <p>Helbidea:</p> <p>.....</p> <p>Telefono zenbakia: (herrialdeko aurrezenbakia) (tokiko aurrezenbakia)</p> <p>Fax-zenbakia: (herrialdeko aurrezenbakia) (tokiko aurrezenbakia)</p> <p>Posta elektronikoa:</p> <p>Helarazpenaren data:</p> <p>Espedientearen erreferentzia:</p> <p>Erabil daitezkeen hizkuntzak:</p> <p>.....</p>

¹ Atal hau EIA hartzen duen agintaritza bakoitzak bete beharko du. Betebehar hau EIA aitortzeko eta betearazteko agintaritza eskudunari dagokio eta, horrelakorik dagoenean, agintaritza zentralari edo EIA agintaritza eskudunari helarazi zion agintaritzari.

D) AGINTARITZA EMAILEARENTZAT EGOKIA IZAN DAITEKEEN BESTE EDOZEIN INFORMAZIO:

.....
.....

E) SINADURA ETA DATA

Sinadura:

Data

Zigilu ofiziala (horrelakorik badago)

XV. ERANSKINA

Jakinarazpena

Formulario hau erabiliko da estatu kide bati jakinarazteko haren lurraldean eta haren laguntza teknikorik gabe telekomunikazioak kontrolpean hartuko direla, hartzen ari direla edo hartu direla. Honen bidez, honako honi (jakinarazpena jasoko duen estatu kidea) telekomunikazioak kontrolpean hartzeko jardueraren berri ematen zaio:

A) AGINTARITZA ESKUDUNA ²

Telekomunikazioak kontrolpean hartzen diren estatu kideko agintaritza eskudunaren izen ofiziala:

Ordez kariaren izena:

Eginkizuna (titulua/maila):

Helbidea:

Telefono zenbakia: (herrialdeko aurrezenbakia) (tokiko aurrezenbakia)

Fax-zenbakia: (herrialdeko aurrezenbakia) (tokiko aurrezenbakia)

Posta elektronikoa:

Espedientearen erreferentzia:

Jaulkitze-data:

Agintaritzarekin komunikatzeko hizkuntzak:

B) KONTROLPEAN HARTZEN DIREN TELEKOMUNIKAZIOEI BURUZKO INFORMAZIOA:

I) Egoerari buruzko informazioa: Jakinarazpen hau egiten da (markatu behar den laukia)

telekomunikazioak kontrolpean hartu baino lehen

telekomunikazioak kontrolpean hartu bitartean

telekomunikazioak kontrolpean hartu ondoren

II) Telekomunikazioak kontrolpean hartzeko jarduera zenbat denboraz luzatzea kalkulatu den (agintaritza emaileak dakienaren arabera):, egun honetatik hasita:

III) Honako hauei dagozkienak hartuko dira kontrolpean: (telefono-zenbakia, IP helbidea edo posta elektronikoa)

IV) Ukitutako pertsonen identitatea

Adieraz ezazu prozedurak zein pertsona fisikoren edo juridikoren aurka egiten diren/egin ahalko diren/egiten ari diren, horien identitateari buruz ezagutzen den informazio guztia:

a) Pertsona fisikoentzat

Abizenak:

Izena(k):

Beste izen bat(batzuk), halakorik badago:

Ezizena, halakorik badago:

Sexua:

Nazionalitatea:

Nortasun agiriaren edo gizarte segurantzako agiriaren zenbakia:

Jaiotza-data:

Jaiotza-lekua:

Bizileku eta helbide ezaguna; jakin ezean, ezagutzen den azken helbidea:

Pertsonak ulertzen duen(dituen) hizkuntza(k):

² Hemen aipatzen den agintaritzarekin jarri beharko da harremanetan estatu emailearekiko korrespondentzia gehigarrian.

b) Pertsona juridikoentzat

Izena:

Pertsona juridikoaren forma:

Izen laburtua, oro har erabiltzen den izena edo merkataritza-izena, halakorik badago:

Egoitza soziala:

Matrikula-zenbakia:

Pertsona juridikoaren helbidea:

Pertsona juridikoaren ordezkariaren izena eta harremanetarako datuak:

V) Telekomunikazioak kontrolpean hartzearen xedeari buruzko informazioa:

Adieraz ezazu behar den informazio guztia, horren barne direla kasuaren deskribapena, delituaren edo delituen kalifikazio juridikoa eta aplikatzekoak diren lege-araua edo kodea, jakinarazpena jaso duen agintaritzari honako hau ebaluatzeko aukera emate aldera:

barneko antzeko kasuetan telekomunikazioak kontrolpean hartzea baimentzen duen; eta lortutako materiala lege-prozeduretan erabil daitekeen

kontrolpean hartzea, jada, egin denean, ea material hori lege-prozeduretan erabil daitekeen

Ohartarazten da esku-hartzeari edo jada esku hartutako materialaren erabilerari buruzko edozein eragozpen honako jakinarazpen hau jaso eta 96 ordu iragan baino lehen aurkeztu beharko dela.

C) SINADURA ETA DATA

Sinadura:

Data

Zigilu ofiziala (horrelakorik badago):